



uk

251. zenbakia / 2014ko apirilaren 29a

URTEAN 20€

Urtean UK aldizkariaren 20 zenbaki Urte osoan Uribe Kostan gertatzen denaren barri **Urte osoan** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean **Urte osoan** argazki zahar eta barriak **Urte osoan** zure proiektuak lau haizetara **Urtean 20 euro**

uk  Harpidetu eta jaso UK zure etxean, hamabostero. Urtean 20 euro.

www.ukaldizkaria.biz neuk.ere.gura.dot **UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
ZUZENDARIA: Irantzu Sagaminaga
ERREDAKZIOA: Zuberora Itururu, Julien Nafarrate, Iker Rincon, Irantzu Sagaminaga
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Armando Llamosas, K. Oñate, Amaia Arriaga, Aritz Bergara, Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
MARRAZKILARIA: Laurita Siles
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
FILMAZIOA: Parima Digital S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

TRATU TXARRREN BIKTIMAK ARTATZEKO EUSKO JAURLARITZAREN TELEFONO ZENBAKIA: 900 940 111

Bizkaiko Foru Aklundia Diputación Foral de Bizkaia
 Kultura Saria
 Departamento de Cultura

Non zer

4. PLAZA. Amaia Arriaga / Berbots Euskaltzaleen Topagunea
5. IRUDIA. Landa bete bitxilore.
6. FACEGUK. Zer deritzozu Urduizen TAO ezartzeari?
7. LEHEN ETA ORAIN. Gorlizko hondartza.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Miren Deusto eta Jose Suarez.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainontzeko herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Kanpomartxo 2014.
28. ARGAZKIA. Meza Gorlizen, 1937.
30. BERBETAN. Virginia Imaz.
34. FOTOGRAFIA. Zuriñe Unzueta.
40. SAKONEAN. Asuko portu zaharra.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Fant jaialdia.
43. MUSIKA. MAZ Basauri.
44. LIBURUAK. ArgiHizkiak testu-lehiaketa.
45. KIROLAK. Elaia Torrontegi taekwondolaria.
46. ELKARRIZKETA. Unai Aranzadi.
47. JENTILKOBA. Gauargi.

AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Arrigunagako uramakia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Laurita Siles.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Itxas Gane taldekoak, 1966.
54. AITORMENAK. Patxo Telleria.

Azala: Zuriñe Unzueta

www.ukaldizkaria.biz



30 Virginia Imaz

Berbetan

Clown, ipuin-kontalari, aktore eta irakasle donostiarrak umoreaz, plazeraz, emakume ahotsez jardun du.



11 M. Deusto eta J. Suarez



54 Patxo Telleria

RENAULT CLIO BERRIA

www.renault.es / 902 333 500

- ESP ETA ABIADURA-ERREGULAGAILUA/MUGAGAILUA
- MANTENIMENDUA 2 URTEZ DOAN
- MP3 IRRATIA BLUETOOTH® ETA USB-AREKIN
- AIRE GIROTUA
- TABLET-A OPARI



9.600€* -AN

CLIO AUTHENTIQUE 1.2 16V 75 ZP Basic Pack-arekin

Renault España YouTube Renault ESP

TEKNOLOGIA BIHOTZEAN

DRIVE THE CHANGE

Clio Berriaren gama: kontsumo mistoa (l/100 km) 3,5 eta 6,3 bitartean. CO₂ isuriak (g/km) 90 eta 144 bitartean.

BILBO BERRI JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU · www.billboberrri.com
LEIOA BERRI AUTO IPARRAGIRRE HIRIBIDEA, 94. TEL. 94 480 42 90. LEIOA · www.renault.es/concesion/leioaberri

aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....
 Kalea/zenb..... Herria.....
 e-mail.....
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero 20 euro 30 euro 50 euro
 beste kopuru bat euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa, 48991 Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 944 911 337

Amaia Arriaga

> Berbots, Erandioko Euskaltzaleen Topagunea

Estatuaren esku-hartzea gelditu!

Estatistikek diotenez, Erandion asko gara euskaldun, 6.000 lagun inguru. Beste horrenbeste ei dira euskara ulertzen dutela adierazi dutenak. Beraz, gurean gehiengo gara, zelan edo halan, euskararen jabe. Halan da guztiz be, ezin esan Erandion euskara askorik entzuten denik, eta arrazoi bila hasita, euskaraz jardutea nekoso egiten zaigula nabarmendu behar.

Batetik, euskaldunok ez dugu komunitate trinkorik osatu, sakabanatuta gaude, eta ez dugu elkar ezagutzen. Gainera beti edo ia beti daukagu koadrilan zein etxean erdaldunen bat, eta gu ez gara katalan, geurean jarduteko.

Bestetik, *'Dabilen harriari goroldiorik ez'* esakunari buelta emon eta erraz irudikatuko dugu egonean egonez goroldioak estalitako harria dela gure berbakera, hizkuntzaren espresibitateak kale egiten digula. Horregatik, guretzat berebiziko garrantzia du gure herrian eta gure eskualdeetan euskal hiztunen komunitatea sortu eta biziberritzeak, euskararen erabilera areagotzeko, euskaraz bizitzeko behar-beharrezkoa dugulakoan.

Horixe du Berbotsek erronka, eta bidea egiten ari gara, pausoz pauso, atseginenez, euskara zorion-iturri delako Berbotseen gabiltzanontzat. Ez gara, baina, Arkadian bizi, Euskal Herrian baino, eta bertan bizi garen guztiontzat euskara gozagarri eta bizigarri izango bada, ezinbestekoa dugu hizkuntza politikan eragitea. Ardura hori geure gain hartu dugu Topagunean bildutako euskaltzaleen elkarteetako kideok, eta Berbotsek urteak daroaz lanean, herriko hizkuntza-politika gara-tzeko ardura duen Udalarekin ere elkarlanean eta ekarpenak egiten.

Sarritan izan ditugu hika-mikak araudietan onartua Udalak berak betetzen ez duelako, eta kezkarria zaigu udal aginta-



ritzan apenas dagoelako inor bere jarduna euskaraz egiteko gai. Herriko agintariak euskaltasuna gutxietsi egin dutela esango genuke, folkloretik harantzago balio askorik emon barik. Panorama hori nahikoa kezkarri ez, eta hor dator estatuaren ordezkaria bazterrak nahastu nahian, Erabilera Planak euskaldunoi hauspo gehiegitxo emango digulakoan.

Erandioko Udalbatzak 19 zinegotziren aldeko botoekin onartu zuen Bigarren Erabilera Plana (2013-2017), estatuan a-

gintean dagoen alderdikoek besterik ez zuten kontrako botorik eman. Kontua da Madrilen argi daukatela zein garrantzitsuak diren hizkuntza-politikak, eta gurean, sarritan, ez garela horretaz jabetzen.

Apirilaren 9ko agerraldiarekin erne ibiltzeko deia egin nahi izan diegu herriko euskaltzaleei, aurrera egitea nekeza bada atzerantz oso erraz joan daitekeelako. Euskal hiztun-komunitate kontzientziadunak euskara gozagarri egiten asmatuko duen konfiantzaz ari gara sareak josten. ○

gu geu

Oraindino burua han...

Han, non? Bada han, bardin dio non, baina oporraldian! Lan egitera kondenatutako behargin tristeok... eta UK ere, bueltan gaude! Bardin digu zer ospatzen den, edo zein arrazoiengatik "izendatu" duten oporraldia, gu gozatzeko sortu ginen!

Eta zin dagizuegu UK hamabostean behin osatzeagaz ere gozaten dugula; horregatik itzultzeaz ere pozten gara!

Gozamenik eta umorerik ez daitezela falta!

Horretarako orrialdeotara batu ditugu umoregileak eta gozatzeko aukera andana. Irakur itzazue orrialdeok goitik behera, atzekoz aurrera, erditik hasita edo gura duzuen legez, eta hautatu zuen gozamenerako eta bizitzari barrez aurre egiteko zuen txokoak, aukerak, aldi-uneak... Eta utzi burua aske, hara buelta dadin...

UK-ko lantaldea

Zuretzako lorak / Landak zuriz jantzi dira. Bitxilore arruntek edo basabitxiloreek euren erreinua hedatu dute udabarrirako legez. Landa bete bitxilore, han eta hemen. Gu, maitasunez betetako oparitzeko pultserak sortzea buruan... Eta erleak ere pozik! Baina, haizeak xurrunmuru ixila dakar: *"Kontuz! Bihar-ezti etorriko ei dira... Gerra-makinen oihartzuna hur entzuten da..."* Ahots dardartiz, bitxiloreak azken hasa lapurtuko dien sega-makinaren eta hori gidatzen duen lorezainaren beldur dira... *"Lorazaina? Hori dun hori ironia, Bitxi!"* *"Lasai, Basabiti! Bati noizbait entzun nion: lorak ebagiko dituzte, baina ezin dute udabarrira gelditu!"* ○ / Argazkia: Asier Mentsaka

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!

Zer deritzozu Urdulizen TAO ezartzeari?



o Urduliz

Tomas Gutierrez

> garraiolaria

Dirua ateratzeko kontu bat besterik ez da. Ez dakit benetan aparkalekuen kontuan zer edo zer konponduko duten neurri hori hartuta. Gaur egun ez dut us-te aparkatzeko arazorik dagoenik, baina ospitalearen kontuarekin arazoak areagotuko ei dira. Hala ere, herritarren gehiengo kontra dago.



o Urduliz

Estibaliz Collantes

> saltzailea

Niri ondo datorkit TAO jartzea. Hala ere, auzokideok ere ordaindu behar izatea aparkatzeko ez zait ondo iruditzen. Oraindik ez dute zehaztu ordaindu beharko dugun edo ez, eta ordaindu behar izatekotan, ez litzaidake gustatuko, urtero Zirkulatzeko Zerga pagatzen baitugu.



o Urduliz

Amaia Abando

> autonomoa

Ez zait ondo iruditzen neurri hori hartzea momentu honetan zerga ugari ordaindu behar ditugulako eta kaltetuenak auzokideok izango garelako. Zona urdina eta gorria jarriko dute, eta guk bi zonetan aparkatu ahal izango dugu. Baina hainbeste auto etorriko badira, guk ere ez dugu aparkatzeko tokirik izango.



o Sopela

Iker Mezo

> makina-operadorea

Txarto. Batzuentzat ez da erosoia izango, baina beste batzuentzat bai. Sopelan hondartzan erosoia da bertan bizi direnentzat. Baina Urduliz bezalako herri txiki batean ez dakit zergatik ezarri nahi duten TAO. Sopelan azkenean jarri zuten nahi zutelako, ez beharra zegoelako, eta jende ugari kontra agertu zen.



o Urduliz

Aranzazu Uria

> administrari laguntzailea

Orokorrean auzokideon artean hitz egin dugun gaia da, eta ez zaigu ondo iruditzen horrelako kontu bat ezartzea. Lehenik eta behin garraio zerbitzuak hobetu beharko litzukete TAO ezarri aurretik. Badago neurri hori hartzea nahi duen jendea, baina orokorrean jendea aurka dago.



o Urduliz

Esti Rodrigo

> saltzailea

Gaizki iruditzen zait. TAO ezarri baino lehen garraio publiko gehiago egon beharko litzateke. Gero, hori lortzen denean eta herrian hobekuntzak daudenean, TAO jarri beharko genuke. Horrekin guztiarekin, Udalak dirua bildu besterik ez du nahi, enpresa pribatu batek bideratuko baitu dena.



[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / GORLIZKO HONDARTZA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > usoaren itzala



Gorliz, 2014ko martxoa

Testua: **Iñigo Kortazar** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: *Usoaren itzala*

Uso txuria egun guztia
dabil hona eta hara.
Baina nekatu egin da eta
hartu gura du patxada.
Atari edarra Santa bategaz
eta hortxe jaku para.
Santa hau berau dabil pentsatzen:
"Zertara etorri zara?"

Santak badaki usoa dala
pekatari paganoa,
baina bihotza zabalik dauka
izaera dibinoa.
Halere Santak pentsatutako
hura esatera noa:
"Uso txuria badator noski
kentzen protagonismoa!"

"Baina horrela ezin jarraitu
usoa behar dot hautsi!
Ostikada bat oharkabean
eta bospasei igurtzi."
Baina Santaren handikeriak
iraun dauenez hain gutxi.
Usoak ogi-puska ikusi
eta Santa hor du utzi.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz


Inprimatu zure posterra
airetik ateratako Bizkaiko argazki onenekin
Pilo bat daukazu aukeratzeko



www.bizkaiadesdeelaire.com

Sar zaitetz zure eskaera egiteko

9,32€
-tik hasita
BEZ barne



"Eulea"-ren gaineko liburuaren azala

berbatxangoa > Eustakio Larrabeiti ezagutzeko

Eustakio Larrabeiti "Eulea" (Loiu 1848-Galdakao 1936) bertsolariaren ekarpenak ezagutzeko berbatxangoa antolatuko dute Sopelako Aitxul eta Erandioko Berbots euskara alkarteek, eta Getxoko Egizu ekimenak. Maiatzaren 11n ipini dute hitzordua, 09:30ean Erandioko metro aurrean, 09:45ean Algortan metroko markesinan, eta 10:00etan Sopelako elizan. Asier Legarreta gidari mungiarra

(Eustakio "Eulea" ilbindu trespunte (Laukizko Udala, 2012) liburua plazaratu du), Gatika, Laukiz eta Mungiara joango dira, "Eulea"-ren bizitzan esanguratsuak izan diran lekuak bisitatu, azalpenak entzun eta haren bertso-paperak kantatzeko. Izena emoteko herriko elkartera hurbildu:

Berbots: berbots@gmail.com / 634 410 575
Egizu: egizugetxo@gmail.com / 619 935 541
Aitxu: aitxuzuba@gmail.com / 603 894 364

bizkaiko txapelketa > eskualdeko kanporaketa

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako Uribe Kostako kanporaketak maiatzaren 9an, 10ean eta 16an izango dira; eta eskualdeko finala hilaren 24an (Getxoko Faturan, 17:30). Lehen kanporaketa Barrikan izango da (hilak 9, 20:30), Nagusien Etxean, eta lehiatuko diren bertsolariak ondokoak: Aitzol de Castro, Dani de Miguel, Arkaitz Gomez, Josu Landeta, Joanes Igeregi, eta Ekaitz Larrazabal "Katxo".

Hurrengo kanporaketa Algortakoa da (hilak 10; 20:30) AzeBarrin, eta norgehiagokan jardungo dutenak hauek: Peru de Pedro, Paule Loizaga, Miren Loizaga, Peio Arondo, Iñigo Kortazar eta Gabi Basañez. Azken kanporaketa, Sopelako Ander Deuna Ikastolan izango da (hilak 16, 20:30) eta bertsolariak: Itxaso Paia, Pello Etxebarria, Maialen Markaida, Imanol Uria, Arrate Illaro eta Jagoba Pereda. ○



2012ko finaleko "familia"-argazkia

Info+: www.getxo.net

kantaldia-kontzertua > the pub ibiltaria

Oskorri eta The Pub Ibiltariak kantaldia eta kontzertua eskainiko du maiatzaren 3an (19:30) Getxon, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Kontzertuaz gozatzeaz gainera, ohi dan legez, Oskorriak batera kantatzeko aukera ere egongo da. Ekitaldirako sarrerak daborduko salgai daude 7 euroan. *Oskorri & The Pub Ibiltaria 5* lanak (Elkar, 2001) jasotzen dituen kantak hauek dira: "Oriko xoria", "Galai

bat etorri zait", "Hiru damatxo", "Berdabioko semea (Goizuetan)", "Juana Bixenta Olabe", "Amugileen kantak", "Esaten dute bada (Nire senarra)", "Triste bizi naiz eta", "Ardoaren bentajak (Goazen, goazen!)", "Edderra zira, maitea", "Barku simple batean", "Axuri beltza", "Jose Tejeria", "Din don", "Eguntto batez", "Ikusten duzu goizean (Nere etxea)" eta "Ixilixilik dago". Hasi samak berotzen! ○

saiazgetaria



Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa



...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

Koka Kola eta Barea



Inazio Tolosa & Ramon Agirre

Zuzendaria: Asier Sota
Laguntzaile: Xabier Etxaniz



Sarrera, librea

Josu Murueta kultur etxea
(ASTRABUDUA)

Maiatzak 15, osteguna. 20:00 h.

Udaleko
EUSKARA ZERBITZUA
94 48 90 128



"Betikoak etortzen dira erostera, betiko ordu berean!"

M. Deusto eta J. Suarez > Urdulizeko gozoki dendakoak

Umeen tentazio-iturri izan ohi dira gozoki eta litxarriak. Beno, eta horren umeak ez direnek ere ez diote tentazioari eusten. Ondo baino hobeto dakite hori Urdulizeko Gozoki dendakoek. Komertzioa 1994. urtean zabaldu zuten Miren Deustok eta Jose Suarezrek: "Hasiera batean dendak harridura sortu zuen herrian, gozokiak 'pisan' hartzen zirelako. Gozoki 'self-service'-a ekarri genuen Urdulizera, kar-kar!". Aitortu dutenez, gozokiak saltzea ez zen euren bokazioa, eta inoiz zalantzak izan dituzte: "Gozoki-denda zabaldu beharrean, etxetresna edo arropa-denda zabaldu izan bagenu... asteburuak libre izango genituzke". Baina batzuetan nekatuta egon arren, "ordu asko dira!", ez zaie damutu, euren denda herriko topaleku bihurtu baita: "Arrastietan ume eta gazteak etortzen dira batik bat, eta goizetan, emakumeak elkartzen dira Mirenegaz, kontu-kontari. Batzuetan gauzez hamaikak arte geratu gara auzokideakaz berbetan". Azken urteotan herria asko hazi den arren, euren arabera, betiko jendea gerturatzen da dendara: "Hau lo egiteko herri bihurtu da, eta betikoak etortzen dira erostera, betiko ordu berean. Ia-ia bakoitzak zer erosiko duen asma dezakegu". Erretiroaz entzun ere ez dute egin gura, gustura daude-eta gozokiak banatzen!: "Penaz hartuko genuke, hemen herriagaz harremana duzulako, eta giro oso ona dugulako".

Argazkia: Asier Mentxaka / Testua: Julen Nafarrate

Getxo hobeto ezagutu gura?

Toponimia-ibilbideak hasiko dira **maiatzagaz** batera eta **hilabete biz aukera** egongo da **herriko hainbat gune ezagutzeko; aurten, gainera, urteerretako bi bideoz grabatuko dituzte**

Laster hasiko dira Bizarra Lepoan elkarteko euskarazko toponimia ibilbide gidatuak, Getxo hobeto ezagutzeko. Maiatzean eta ekainean garatuko dira, eta eskola, euskaltegi zein bestelako taldeek ibilbidea egiteko eguna eskatzea daukate. Gainera, norbanakoei zabalduko saioetarako egunak ere zehaztu dituzte, urtero legez. Lau ibilbide egingo dira hezeguneak, kostaldea, Getxo barria eta betiko Getxoko txokoak erakusteko.

“**Toponimiatik** hasita eta historia, kultura eta naturaren arloak jorratuz, proiektuaren helburua da Getxo hobeto ezagutzeko aukera” emotea. Toponimia-ibilbideak dira, euskaraz eta doakoak; Bizarra Lepoan elkartek antolatzen ditu Udalaren laguntzagaz. Adituakaz lau ibilbide prestatu dituzte Getxoko 4 eremutan: hezeguneak, kostaldea, Getxo barria eta betiko Getxo.

Ibilbideak taldeka edo bakarka egin daitezke, eta bietarako izena emon daiteke daborduko. Taldeka aste barruan egingo dira eta parte har dezakete ikastetxe, euskaltegi, lagun-talde, berbalagun-talde, aisialdi-taldeak, e.a. Horrelako ibilbidea egin gura dutenek hala eskatu behar diete antolatzaileei. Norbanakoentzat, ordea, egunak zehaztuta daude, ibilbide bakoitzeko bana: maiatzaren 10ean hezeguneak eta 24an kostaldea; ekainaren 7an Getxo barria eta, azkenik, 21ean betiko Getxo. Urteera guztiak hasiko dira 09:00etan.



Ibilbideetan izena emoteko: getxotoponimia@gmail.com eta 688 635 350

Hezeguneetako ibilbidea Fadura kiroldegitik abiatu ohi da eta Boluera arte doa; bidean ezagut daitezke bertako flora eta fauna, Boluntzarreta errota, Santa Kolumbia baserria edota Bonbaren etxea. Kostaldeko ibilbidea, barriz, Portu Zaharreko

“Betiko Getxo ezagutzeko ibilbidea txirrindulaz egingo da ekainaren 21ean; nork berea eroan behar du”

Etzetxutik urtetan da eta Aixerrota arte, San Nikolas ermita, Jeneratxu eta Usategi parkeak, Abra eta abar ikus daitezke.

Getxo berria ezagutzeko ibilbidea Karmengo elizan hasi eta Txurruka kaian amaitzen da. Txango honetan bisitatuko dituzte, adibidez, Avanzada, tren-geltoki zaharra, Punta Begoña, Bola hondartza,

kirol-portua, Zugatzarteko etxeak, Areetako hondartza, Bizkaiko Zubia, e.a.

Azken ibilbideak, ordea, betiko Getxora hurbilduko ditu ibiltariak: Andra Mariko elizan hasi eta amaitzen da. Bidean ikus daitezke Aingerua, Benta, Arteaga/Dilizeko baserriak, Saratxaga, Azkorri, bunkerrak, hondartzak, itsasargia, Galea edota hilerria. Bide luzea izanik, ekainaren 21ean txirrindulaz egingo da.

Esatea aurten bideoz grabatuko dituztela aste barruan egitekoak diren txangoetako bi. Era berean, gogoratzea toponimia ibilbideak 2008an abiatu zituela Bizarra Lepoanek eta urtero egiten direla udabarran eta, batzuetan, udagoieneran. Iaz, guztira, 36 urteera egin zituzten eta ehunka lagunek parte hartu zuen. ○

Info+: bizarralepoan.blogariak.net

Sanisidroak datoz!

Getxoko **jaiak** izango dira maiatzaren **14tik 18ra**



Bariku eta zapatu gauean autobus-zerbitzua egongo da

Geroa eskolako umeek botako dute txupina Getxoko sanisidroetan, maiatzaren 14an eta, eguaztenetik domekara, jaietan murgilduko da auzoa.

Txupina jaurti eta umeentzako jarduerak hasiko dira eguazten horretan, Malakaten: zapiaren jolasa, lokotsak, zelai erreka eta txokolate-jana egingo dituzte. Gauean, barriz, kiroldegiko aparkalekuan izango da herriko musika taldeen kontzertua, 22:00etatik aurrera.

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, *agroginkana* eta puzgarriak egongo dira aparkalekuan 11:00etatik aurrera, eta mokadutxo meza ostean. Arrastian, barriz, idi-probak, umeentzako erromeria (Malakaten) eta poteoa egingo dituzte. Gauean kontzertua izango da aparkalekuan. Barikuan, hilaren 16an, arrastian izango

dira ekimen gehienak: grafiti erakustaldia, mus-txapelketa, *zoomba*, pilota umeentzat eta pala-txapelketa. Gauean, Nebula selektah eta Anai-arrebak taldeek joko dute, aparkalekuan.

Zapatuan egun osoan egongo dira jarduerak. Goizean, puzgarriak, buruhandiak, fanfarrea eta txapel-jaurtiketa lehia-keta. Horien ostean herri-bazkaria egingo dute eta, arrastian, igel-txapelketa eta poteoa. Egundorretan boxeo-gaua izango da, baita kontzertua ere, Ukan eta Garilak 26 taldeakaz. Jaiak amaitzeko, domekan; azoka, herri-kirolak, pintxo-potea, skate librea edota dantzaldia izango dira.

Aurten ere autobus-zerbitzua ipiniko dute bariku eta zapatu gauean, eta linea bi egongo dira: bata Areetaraino iritsiko da, bestea Bidezabaleraino. ○

ZURRUMURRUEN KONTRA JARDUN GURA?

“Errazagoa da zurrumuru bat gelditzea penalti bat baino” lelopean abiatu da Zurrumurruren Kontrako Estrategiaren bigarren edizioa. Sentsibilizaziorako estrategia da, immigrazioaren aurkako estereotipo negatiboak aurre egiten saiatzen dena. Horretarako, zurrumurruren kontrako agente-bila dabilta eta informazio-saioetan parte hartu gura duenak izena emon dezake Herriarren Arretarako Bulegoetan. Heziketa-saioak izango dira maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an, eta ekainaren 4an, 19:00etan, Getxoko Boluntarioen egoitzan, (J.M.Chavarri Zuazo, z/g. Romon).

Info+: www.getxo.net/antirumores

ETXEBIZITZA-MAHAIA ERATU GURA DU BILDUK

Etxebizitza-Mahaia “*lehenbailehen*” osatzea proposatu die Getxoko Bilduk gainontzeko alderdi politikoei, EAJK eta PSEk Getxoko Etxebizitza-plana adostu zutenetik bost urte betetzear daude: “*Denon artean Getxoko etxebizitzaren arazoa aztertu eta irtenbide praktikoak bilatuko ditugu*”, adierazi du koalizioak. Gainera, Mahai horretan etxebizitzaren “arazoa bere osotasunean aztertu” beharko litzatekeela uste du, eta ondoko gaiak landu beharko litzatekeela: “*Etxebizitza hutsari aurre egiteko eman beharreko pausoak, Bizigune programa sustatzeko neurriak, hiri-lurzoruan dauden Exekuzio Unitateetan alokairuak izateko finantziario iturriak, e.a.*”.

Info+: getxo.ehildu.net

ELIAS AMEZAGA SARIA JASO DU FEDE BILBAOK

Algortako Sotavento kultur elkarteak IV. Elias Amezaga saria emon dio Fede Bilbao Solozabalari (Getxo, 1935). Poeta eta Athletic futbol taldeko jokalaria ohiaren lana goratu gura du aurten Sotaventok sariagaz. Bederatzi liburu idatzi ditu, hasieran eleberririk eta gerora poesia. Algortako La Gusana liburu-dendan jaso zuen saria Bilbaok apirilaren 11n.

Info+: www.eliasamezaga.com

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

Tf-944305243/ 607952977-6 regaraizar@gmail.com
www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

EGUNKARIAK
prentsa eta aldizkariak

*gura izanez gero,
etxera eroango dizugu
egunkaria!!!*

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

Ander Alzaga eta Jorge Sarasola > *Marrak* Abarketak

“Gureak ez dira ohiko abarketak: koloreakaz eta marrakaz, artisauek eskuz egindakoak”



Alzaga eta Sarasola, aurtengo espartin-kolekzioagaz

Abarketak saltzen dituzte Ander Alzaga Errekato eta Jorge Sarasola Orio algortarrek. Iaz sortu zuten *Marrak* enpresa eta oraingoaz zaletasun bezala bizi dute. Ipar Euskal Herriko artisauek egiten dizkie espartinak, eskuz. Gainera, ohiko kolore zurrunetatik ihesi, marradunak egiten dituzte, markak aditzera emoten duen moduan. Egitasmoa apurka-apurka zabaltzeko asmoa daukate eta, ildo horretan, kamisetak eta hondartzarako palak ere egin dituzte uda honetarako. Interneten eta zenbait dendatan topa daitezke.

—Abarketak saltzen hasi zineten iaz, zelan izan zen hori?

—Zaletasun moduan hasi zen kontua eta horrela da oraindino, apurka-apurka goaz-eta. Moda eta diseinua gustuko ditugu eta, gaur egun, teknologia barriakaz, errazagoa da horrelako gauzak egiten hastea. Anderrek aspaldi ditu gustuko abarketak, iparralden erosten zituen eta beti izan du buruan horren inguruan zer edo zer egitea. Iaz bion artean hitz egin eta erabaki genuen apurka hastea abarketak ekartzen. Berez, bakoitzak badaukagu gu-

re lana, baina Jorgeren bokazioa betidanik izan da diseinua. Asmoa da apurka hedatuz eta zabalduz joatea, ahalik eta urrunen iristeko.

—Zuek diseinatzen dituzue espartinak?

—Beno, gauza apur bat zaila da. Egiten dituztenak nahiko zurrunak dira, baina guk geure ukitua emon gura diegu: aldatzeko proposatzen ditugu eta arazoa da; hori da gure eguneroko borroka. Ezin da edozein oihal erabili, denak ezin direlako josi abarketetan; beraz, nahiko mugatuta gaude. Dena den, aurtengo zortzi modelo

atera ditugu, gure etiketa eta guzti. Aurtengo apur bat berandu ibili gara, baina irailetik aurrera, jendeagaz hitz egiten hasiko gara hurrengo urteari begira.

—Eta marrak, ezta?

—Bai, noski! Ohiko abarketaren eruditik atera eta oinetako biziagoak egiten ditugu, koloretsuak. Iazko gehienak marradun-

«Zaletasun moduan hasi zen kontua, eta apurka hedatzea da asmoa»

nak izan ziren eta hortik hartu genuen izenerako ideia. Gainera, izen gogorra eta entzutetsua da, buruan erraz gordetzekoa. Iparraldeko artisauek egiten dituzte, eskuz, beraz ez dira edozelakoak. Baina abarketez gainera, oraingoan hondartzarako palak eta kamisetak ere egin ditugu, iaz abarketakaz hasitako filosofia udatiarren barruan, berau osatzeko.

—Internetez saltzen duzue?

—Gehien bat internetez, baita denda batzuetan ere. Hasierako asmoa da denda birtual moduan aritzea, eta hori finkatuta, zabaltzen joatea denda fisiko batzuetan. Toki batzuk lotuta dauzkagu, baina saiatuko gara eskualdetik kanpora ere erosten, Donostiara, Bizara, e.a. Gainera, azoketan ere bagabiltza.

—Eskakerak ere leku askotatik iritsiko dira internetez, ezta?

—Bai, sare sozialen bitartez asko zabaldugu, adibidez, izugarria da *Instagram*, edozeinek ikus dezakeelako zure gunea, ez duzu zertan kontua eduki. *Facebook*-en ere bagaude eta webgunea daukagu. Australiatik ere eskatu dizkigute, baina Europatik kanpora hedatzea zaila da, aduanak direla eta ez direla. Dena dela, gu apurka goaz, presa barik. ○

Info+: www.marrak.biz

Txalupak merkatuan

Itxas Egurra Haizean erakusketa Algortako merkatuan, maiatzaren 8tik 10era



Berreskuratzen dabilzan txalupa erakutsiko dute

Itxas Egurra Haizean Usadioko Txalupa Elkarteak erakusketa antolatu du maiatzeko Algortako merkatuan: hilaren 8, 9 eta 10ean izango da.

Bertan ikusi ahaliko da elkartearen berreskuratzen ari den txalupa, baita lan horretarako erabiltzen dituzten tresnak ere. Izan ere, horixe da euren helburua eta xedea: egurrezko itsasontzi klasikoak eta historikoak berritzea. Tradiziozko arrauk eta belaontziak konpontzeaz gainera, beraien erabilera bultzatu gura du elkarteak, bai jolaserako, bai arrantzarako.

Horregatik, lan horri buruzko film labur bat eta argazkiak ere erakutsiko dituz-

te merkatuan; filmak 6 minutu irauten du eta etengabe proiektatuko dute. Inaugurazioa maiatzaren 8an izango da, eguean, eta bertara hurbiltzeko dei egin diete herriko gainontzeko elkartei eta taldeei. Izan ere, “oso garrantzitsua” deritzote Getxoko gainontzeko elkarteek euren “lana eta egitekoa ezagutzeari, zertan dabilzan jakiteari eta elkarren artean harremanetan egoteari”. Baina Itxas Egurra taldeko lagunak arduratuta daude ez daukarelako lokalik txalupak berreskuratzen lanak ganoraz egiteko, eta Udalarari eskatu diote toki bat uzteko. ○

Info+: itxas.getxo.net

JOSUNE MUÑOZEN HITZALDIA ALGORTAN

Skolastika eskolako zuzendari Josune Muñoz Algortan izango da apirilaren 30ean, eguaztenean, hitzaldia emoteko: *El tiempo entre costuras* eleberriri buruz jardungo da Villamonte kultur etxean, 19:00etan. Hain zuzen ere, *El tiempo entre costuras*. *Palabras, hilos y otros misterios* izenburua ipini diote hitzaldiari. Skolastika “emakumeok sortu eta sortzen ari garen kultura ezagutzeko gunea da”. Kultura berreskuratzen, aztertzen eta ezagutarazten dihardute, eta kritika lana egiten, betiere ikuspegi feministatik. Baietz gehiago entzuteko gogoz atara hitzalditik!

Info+: www.skolastika.net

EMAKUMEAK MUSIKAN JAIALDIA MAIATZEAN

Emakumeak Musikan jaialdia maiatzaren 10ean eta 11n egingo dute, Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Emakume konposatzaileen lanak entzuteaz gainera, euren hitzak ere entzungo ditugu, solasaldi batean. Hain zuzen ere, solasaldiak abiatuko du jaialdia, hilaren 10ean eta 19:00etan: Anna Bofilek eta Mercè Capdevilak hitz egingo dute, eta Gotzone Higuera gidatuko du. Jarraian, jaialdiko lehen kontzertua izango da. Lehen saioan Luis Fernandezek joko ditu emakumeek klarineteagaz jotzeko konposatutako piezak. Maiatzaren 11n, barriz, Musikeneko ikasleak jardungo dira taula gainean, 19:00etatik aurrera. Gonbidapenak jaso daitezke kultur etxean.

Info+: www.getxo.net

NAZIOARTEKO DANTZA-EGUNA, MAIATZAK 10

Getxoko dantza akademiek eta taldeek urtero prestatzen dute emanaldia maiatzaren 10erako; izan ere, Nazioarteko Dantza Egunerako. Aurtengo hiru ekimen izango dira, non eta Algortako Batzokiaren atzeko patioan. Eguerdian, 12:00etan, dantzaldia izango da, 17:00etan tailerrak eta 19:30ean dantza-gala. Hurbildu beldur barik, sarrera doakoa da-eta.

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
gusanalibreria@gmail.com

Betiko ikastolako ikasle eta irakasleak > literatura-gaua ikastolan

“Ikasle, irakasle zein sukaldari, denok inplikatu gara eta errepikatzen moduko esperientzia izan da”

Apirilaren 3a egun berezia izan zen Betiko ikastolan: ikasle zein irakasleek, ikastolan lo egin zuten gau literarioa egiteko. Ikasleen erdiak parte hartu zuen, 6 urtetik gorako 250 inguruk, eta hainbat ekintza egon ziren: musikariak, antzezleak e.a. Irakurzaletasuna sustatzeko Juul izeneko kanpaina amaitzeko modu barritzailea izan da.

—Ikastolan lo egin duzue, zer dela-eta?
—(Ikasleak) Irakurtzeko gaua antolatu zuten irakasleek Juul izeneko kanpainaren barruan. Arrastiko 19:30ean etorri ginen eta ekintza batzuk izan genituen.
—Zertarako da Juul kanpaina?
—(Irakasleak) Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina da eta Nafarroako ikastolek antolatzen dute urtero, gura duten ikastolek parte har dezakete. Kanpaina hasi zenean, liburutegi erraldoia antolatu genuen pasabideetan, koltxonetakaz. Amaitzeko, barriz, normalean bozketa egiten da ikasleek adieraz dezaten zein liburu gustatu zaien gehien. Baina kanpainari bultzada emoteko, aurten literatura-gaua egitea pentsatu genuen. Suitzako eskola batean egiten dute eta hortik hartu genuen ideia. Ez genuen espero horrenbeste ikasle ani-



Irati Guarrotxena, Ane Gelbentzu, Irati Lopez Pastor eta Maialen Galbarriatu ikasle-irakasleak

matzea, baina 250 inguru etorri dira.

—Zer ekintza mota egin duzue?

—(Ikasleak) Okupando Roma punk-taldeko musikariak etorri zitzaizkigun eta kontatu ziguten beren historia, erakutsi zizkiguten argazkiak eta bideoak, eta diskoa oparitu ziguten.

—(Irakasleak) Ipuin-kontalariak ere izan ziren eta antzerkia egin zuten Arte Ederretako ikasle batzuek.

—(Ikasleak) Elkarregaz afaldu eta oheak

antolatu genituen. Gero batzuk irakurtzera, besteak hitz egitera... Oso pozik gaude, ametsa zen ikastolan lo egitea.

—(Irakasleak) Guk ez genuen espero hainbesteko parte-hartzerik, baina giro oso polita sortu da, oso pozik gaude. Goizean ikastolako sukaldariak gosari ederra prestatu digute, eta eskertu behar diegu. Denon arteko elkarlanari esker egin ahal izan dugu ekimena, denok inplikatu gara eta; errepikatzen moduko esperientzia. ○

Sudur gorria eta kalera! Umore Azoka izango da maiatzaren 15etik 18ra eta 45 ikuskizun izango dira



Umore Azokako aurreko edizio bat

Maiatzaren 15etik 18ra 45 ikuskizunegaz gozatu ahalko da Leioako Umore Azokan, iaz baino apur bat gitxiago, eta horietatik 18 erabateko estreinaldiak dira. Aurten 43 konpainiak parte hartuko du eta ehundik gora emanaldi egingo dituzte, arte eszenikoen hainbat diziplina landuko dituztela: antzerki, zirko, dantza, txotxongilo, klown, performance, musika, instalazioak, e.a.

Taldeetatik 14 Euskal Herrikoak dira eta 15 ikuskizun eskainiko dituzte, 8 estreinaldiak: antzerki arloan, *Cenicienta* (Borobil taldea), *Nola* (Hortzmuga), *Athra Silex* (Kolectivo Monstrenko), *¿Espinazo o callos?* eta *Mama gallina* (Pez limbo) eta *La conga* (Trapu zaharra) la-

nak; zirkoaren arloan, *Spazi...o* (Dicothomia), *22:55* (Endika Salazar), *Txatarra* (Malas compañías) eta *Irakurriz* (Shakti Olaizola); dantza arloan, *Carnaval* (Cielo Raso-Igor Calonge), *Gelajauziak* (Kukai), *Hooked* (Lasala) eta *Privolva Landing* (Olatz de Andres); gainera, klown arloan *Walkman* antzeztuko du Ganso & Ciak.

Leioako erdiguneko hainbat plazatan egingo dira antzezpeneak (Jose Ramon Aketxe, Errekalde, Euskal Etxeen plaza, Udaletxea, Bulebarra, Kultur Leioa, Udondo, Aldapa, e.a.) eta, ohi legez, ikuskizun ibiltariak ere egongo dira. Gainera, kale-ikuskizunak idazten ikasteko tailerra egin dute apirilean. ○

Info+: www.umoreazoka.org

EL OBSERVATORIO ERAKUSKETA

Elssie Ansareoren *El observatorio* erakusketa ikusteko aukera daukazu maiatzaren 4ra arte, Kultur Leioako erakusketa-gelan. Histeriari buruzko ikerketa biltzen duen liburu bitan bildutako lana da *El observatorio*: batean glosario moduan jaso dira histeriari buruzko terminoak, artistak Imanol Amayra psikologoagaz izandako elkarrizketetatik jasoak; beste liburuan, barriz, artxioboaren argazkiak bildu dira.

Info+: www.kulturleioa.com

GAINBEHERARI BURUZKO ZIKLOA ZINEFORUMEN


Gainbehera eta dekadentzia izango da gaia maiatzeko Perseo zineforumen. Beraz, lau pelikula emongo dute dekadentziari buruzko zikloaren barruan, Kultur Leioan. Maiatzaren 6an, La gran belleza proiektatuko dute baina, hurrengo asteetarako, trilogia bat aukeratu dute: *Paraiso*. Horrela, hilaren 13an emongo dute *Paraiso: Amor*, 20an *Paraiso: Fe* eta 27an *Paraiso: Esperanza*. Emanaldiak 20:00etan hasiko dira eta amaieran solasaldia egingo da. Sarrera 2,5 euro kostatzen da.

Info+: cineforumleioa.blogspot.com

LIBANO KALEA BARRITUKO DUTE

Ekainean hasiko dira lanak Luis Bilbao Libano kalean, errepideko arrakalak konpontzeko eta hainbat aldaketa egiteko. Udalak jakinarazi duenez, errepidea hondoratzen ari da bere betegarria egoera txarrean dagoelako. Errepideko zoladura kentzeagaz batera, kalean dauden 30 zuhaitzak ere kenduko dituzte eta beste mota bateko zuhaitz txikiagoengatik ordezkatu: gaur egun daudenak errepiderantz okertuta daude eta horregatik ezin dira birlanatu, ez luketelako biziraungo. Baina ez da aldaketa bakarra, izan ere, errepidea estutu eta bidegorria egingo dute Libanon.

Info+: www.leioa.net



**Denboraldi berriko arropa
prezio paregabeetan**

Ibaiondo 7, 48930 Erromo-Getxo Tf. 94 656 21 57



AIXERROTA BHI

• TEKNOLOGIKOA
BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



[erandio]

Teresa Gutierrez Etxebarria > atleta

“Ez daukat hitzik, zoragarria da, kirola askatasuna da; gozatu gura dut eta ez dut lehian pentsatzen”

Bilbao-Leioa lasterketa irabazi du Teresa Gutierrez Etxebarriak. Bilbotarra da, baina Erandioko atletismo klubean dabil eta lehenengoz parte hartu du lasterketan. Kirolzale porrokatua, hainbat kirol praktikaten ditu: atletismoa, futbola, piraguismoa, igeriketa, e.a. Argi dago gazte hau ez dela sofán lotzekoa.

—Lehenengoz parte hartu eta irabazi duzu Bilbao-Leioa lasterketa, zorionak!

—Pozik nago, bai, baina uste dut apur bat txiripaz gertatu dela, ez genuelako parte hartu korrikalari askok. Neskak are gitxiago, mutilak izaten dira beti kirolariak; baina neskak ere hor gaude.

—Beste kirolrik egiten duzu?

—Bai, kirol asko praktikatzen dut, txikitatik. Futbolean jokatzeko parte hartzen naiz, e.a. Futbolean urteak daroaz: Leioan hasi nintzen duela bost urte eta aurten Derion. Atletismoagaz ere aurten hasi naiz: nire kabuz korrika egiten nuen, eta azkenean taldean sartzera animatu naiz. Kirolagaz zerikusia daukan edozeren parte hartzeko prest nago. Ikasten ez nagoen denbora apurra kirolean emoten dut, deskonektatzeko eta erlaxatzeko.

—Txikitik askok praktikatzen du kirola,



Aurten hasi da atletismoan

baina zuk jarraitzen duzu, lagunek zer esaten dizute?

—Koadrilakoak ez dira oso kirolzaleak, baina nik espero dut luzerako izatea zale-tasun hau, gainera, osasuntsua da. Danatarako denbora dago: ikasteko, kirola egiteko eta parrandarako.

—Zer emoten ditu kirolak?

—Ez daukat hitzik, zoragarria da. Kirola askatasuna da. Beti nabil neure kasa, eta kirolagaz ere horretarako aukera daukat. Inoiz ez dut pentsatu galdera horretan,

orain hitz barik nago.

—Zaletasuna da, baina zer lortu gura zenuke kirolean, helbururik badaukazu?

—Oraingoz gustura nabil zaletasun bidean. Zerbaiz izatera iristen banaiz ondo, baina oraingoz gustura nabil horrela. Gozatu gura dut eta ez dut lehian pentsatzen. Adibidez, oraingoa bezalako lasterketan irabazteko asmorik gabe joaten naiz. Pentsatzen dut: domeka da, beno ba, joango gara! Ez dut pentsatzen irabaztea; gozatzeri noa eta gero gerokoak. ○

Zazpi urte eta beti gazte!

Erandioko gazte-asanbladak zazpigarren urteurrena ospatuko du maiatzaren 10ean



Aurreko asterako ere ekimenak antolatu dituzte

Zazpi urte joan dira eta umea koskortzen hasi da: Erandioko gazte-asanbladak urteurrena ospatuko du maiatzaren 7tik 10era bitartean; hainbat ekitaldi antolatu dute aste horretarako. Gehienak Kalezulo gaztetxean egingo dituzte.

Maiatzaren 7an hasiko da urteurren-ospakizuna, eguaztenez, etxebizitzari buruzko hitzaldi batez; 19:30ean. Eguean, barriz, afari akustikoa egingo dute 21:00etatik aurrera, ohitura bihurtu den ekitaldia. Barikurako zine-foruma prestatu dute eta esatea kalean egiteko aukera aztertzen ari direla. Ordura arte lasai joango da astea, baina zapatuan herria eta

giroa berotzeko asmoa daukate, eta goizeitik; izan ere, Altagakako kaleetara aterako dute ospakizuna.

Azoka egingo dute 10:00etatik 14:00-etara eta, bitartean, umeentzako jarduerak izango dira: tailerrak, eskalada-murrugatik, e.a. Hitzaldia ere egingo dute, prekaritateari buruz, 13:00etan. Apur bat beranduago izango da herri-bazkaria, 14:30 aldera eta bazkalostean kantatuko du Merenek. Arrastirako utziko dute kalejira, 19:00etarako, eta gauean kontzertua emongo dute gaztetxean Raperos de Emaus eta Patrol Destroyers taldeek. ○

Info+: kalezulo.blogspot.com

IPIUIN-KONTALARIA DABIL AUZOZ AUZO ERANDION

Txiki! Adi ibili! Andrina Basandrina ipuin-kontalaria bazterrak nahasten dabil Erandion, egun bat hemen, bestea han. *Zurumuru* ipuina kontatzera etorri da eta hainbat auzo bisitatuko ditu datozen asteotan: maiatzaren 14an Altagakako liburutegian egongo da, 23an Erandioko gizarte-etxean eta 28an Astrabuduko liburutegian. Saio danak izango dira euskaraz, 18:00etan eta doakoak dira.

Info+: www.erandio.net

FATIMARA GANORAZKO ERREPIDEA 2015ERAKO

Bilboko mugan dagoen Fatima auzorako ganorazko bidea egingo dute datorren urterako, Udalak iragarri duenez, Lutxanako errepidetik. Gaur egungo sarbidea egoera oso txarrean dago eta auto bakarria igarotzeko lekua dauka, norabide bikoada bada ere. Gainera, lur-jausiak areagotu dira iazko denboralean eraginez. Udalak barritze-proiektua osatu du eta egin beharreko lehen lana murru bat izango da, hain zuzen ere, mendi-magalarri eusteko; irailan hasiko dira eraikitzen. Bizkaiko Aldundiaren dirulaguntzak ordainduko du lanen gehiena.

KE BARIK ASKOZ HOBE

Ikasleen artean tabakoa erretzea prebenitzen laguntzeko programan parte hartzen ari dira Erandioko hainbat ikasle: *Kerik gabeko gelak*. Jado ikastetxeko 1. eta 2. mailako ikasleak dira, EAEko beste 50 ikastetxetako ikasleak batera ari dira egitasmo honetan. Eusko Jaurilaritzak sustatu du eta asmoa da adinbakoek tabakoagaz lehen harremana izateko adina atzeratzea. Ikasle guztiak hartu behar dute konpromisoa programak irauten duen sei hilabeteetan ez erretzeko eta, gainera, erretzea prebenitzeko eslogan-lehiaketan parte hartuko dute; horrela, herriko eta eskualdeko lelorik onena aukeratu gura dute.

Info+: www.erandio.net

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaiairratia.com

MR TALLER MECANICO
Coches, Motores Marinos y Fuerabordas
Mota guzietako konponketak: Azterketak, Gurpiak, Indargetzaleak, Soinua...

Tf. 94 430 17 81

Bidezabal Kalea 9
48993 GEIXO

LUBERRI
Basolanak SL
Lorezaritza

Luberrri Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Bizkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberrri@euskalnet.net
www.luberrri.biz

- Soropila ezartzea
Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta erite lanak.
- Seropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelkatzeta, soropil gaitzak eta belar gaitzoak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inauseta, erabateko inausketak.
- Barrualdeak lorategi bihurtzea

APO LASTERKARIA BABESTEKO PLANA

Sopelako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia-sailak apo lasterkariaren babeserako Ekintza Plana abiatuko dute. Horregaz batera, espeziearen ugalketarako putzu sare bat sortu, habitat beharrianak ezagutu eta gizartearen populazioaren egoera eta problematika azalduko dizkiote. Bizkaian populazio bakar batek dirau, Getxo eta Sopelako itsaslabar eta hareatzagaz lotuta dagoena.

UMEAK ERE SOPELAKO JAIEN ANTOLAKUNTZAN

Aurten, adin guztietako sopoloztarrek jaien antolakuntzan parte hartzea gura du tokiko Jai Batzordeak, umeak barne. Hala, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako umeentzako bilera bereziak egingo dituzte, 3 eta 10 urte arteko neska-mutilen proposamenak jasotzeko. Apirilaren 6an lehenengo dinamika burutu zuten, eta haurrek euren ametsetako jaiak marraztu zituzten. Hurrengoa, maiatzaren 4an egingo dute 17:30ean, Kurtzio Kultur Etxean. Horretan, neska-mutilak asanblada egingo dute.

Info+: sopelakojaibatzerdea@hotmail.com

BIZKAIA NAZIOARTEKO PALA-TXAPELKETA

Maila altuko hainbat pala-partida ikusi ahal izango da Sopelan maiatzaren 11n, domeka, Open Bizkaia Nazioarteko txapelketaren baitan. Hitzordua eguerdiko 12:00etan jarri dute, Udal-pilotalekuan. Sarrera 5 eurotan salduko dute, baina 16 urtetik beherakoak doan sartu ahal izango dira partidak ikustera. Txapelketa apirilaren 4an hasi zen, Innpala enpresaren eskumenez, eta ekainaren 21era arte luzatuko da, Bilboko Bizkaia frontoian jokatu den finalagaz. Guztira 44 partida jokatu dira, Armintzan, Balmasedan, Getxon, Mungian, Urduñan, Sestaon, Sopelan, Urdulizen eta Bilbon.

Mikel Laboa oroimenean Zazpi aldiz elur ikuskizunak euskal kantari mitikoa ekarriko du gogora Kurtzion



Tanttaka Teatroa konpainiak Mikel Laboa omendu gura du ikuskizunagaz

Tanttaka Teatroa konpainiak *Zazpi aldiz elur* (Mikel Laboa elurretan) ikuskizuna aurkeztuko du Sopelan maiatzaren 16an, Kurtzio Kultur Etxean. Bertan, Bernardo Atxagaren testuetan oinarrituta, Mikel Laboa omenduko dute. Musika protagonista da horretan, eta zendutako abeslariaren nahiak, bizipozak, gai intimoak, pertsonalak eta ezezagunak kontatuko dituzte, musikari eta antzezle lanari esker.

Zazpi aldiz elur ikuskizuna zazpi ataletan banatuta dago, eta horietan umorea, ausardia eta txoriak ageri dira, Mikel

Laboagan hainbestetan ageri izan diren gaiak.

Lanak lagun arteko bilgune bat aurkeztzen du, neguko gau elurti batean kokatua. Leiohetatik argi-zuriaren erreflexuak sartzen somatuko da, eta protagonistak elurrez inguratutik daudela adieraziko dute argiek. Halako batean, pertsonaietako batek istorio bat kontatzeari ekingo dio, eta besteek entzuteko griña piztuko zaie. Bitartean, beste batek akorde batzuk ferekatuko ditu, eta konturatu orduko, denak Mikel Laboaren kantu bat abesten hasiko dira. ○

Carrasson, Makaia eta Zalbidea > Sekeko gaztetxea
“Egun osoko egitaraua prestatu dugu jendeak urteurren goza dezan”



Gaztetxeako kideek hainbat eskaintza egiten dizkiete Sopelako gazteei urte osoan

Lau urte igaro dira Sopelako gazte-asanbladak Sekeko gaztetxea okupatu zuenetik. Gazte horiek errota zahar bat biziberri zuten, eta ordutik hainbat ekimen antolatu dituzte herria dinamizatzeke. Hala, hori guztia ospatzeko, hainbat ekitaldi egingo dituzte maiatzaren 10ean, zapatuan.

—Aurten lau urte beteko ditu Sekeko gaztetxeak, zer duzue prestatuta urteurren hori ospatzeko?

—Urtero legez, goizean umeentzako jolasak edota tailerrak egingo ditugu, Plazaratu elkarteak antolatutako azokagaz batera. Ondoren herri-bazkaria prestatuko dugu herriko plazan, eta asebeteta, kalejira musikatu izango dugu herriko tabernetan. Eguna amaitzeko, ekitaldia eta pare bat kontzertu entzuteko aukera edukiko dugu herriko gazteek giroaz goza dezaten. Oraindik ez dugu gaueko ekintzen kokalekua finkatu, barne eztabaidan sartuta gaudelako. Herriaren

inplikazioa beharrezkoa ikusten dugu, eta laguntza hau jasotzen ez badugu, Sekeko gaztetxean egingo ditugu kontzertuak, eta ez Udaletxeko plazan, orain arte egin dugun bezala.

—Lau urte horietan zeintzuk izan dira garaitu beharreko oztipoak?

—Urte hauetan nabaria izan da Udalagaz izan dugun harremana ona. Hala ere, Sopelako Udaltzaingoaren aldetik jarraipen nabaria somatu dugu. Hala ere, azkeneko hilabeteetan gutxitu egin da.

«Herriaren inplikazioa beharrezkoa ikusten dugu urteurrena ospatzeko»

—Ibilbide horretan, zelako eskaintza egin duzue?

—Hainbat eskaintza egin dizkiegu Sopelako gazteei lau urte hauetan. Orokorrean, aisialdi alternatiboa eskaini dugu, ezagutzen dugun aisialdi komertzialetik ihes egiteko ate bat zabaltzea beharrezkoa ikusten baitugu. ○

OIARBIDE DEKORAZIOA

- Pladur: Tabikeak, zapaiak, baldak
- Eskaiola: moldurak, kornisak
- Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiarbide@hotmail.com
Andikoetxe 2, 48993 GETXO



**Gosariak,
Pintxoak,
Giro eta musika onena
ONGI ETORRI!!**

Bentaxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA



**zure
publizitatea
hemen!**

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

DIDAK hAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com


ANDER DEVNĀ IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email: sopela@ikastola.net

OINUTSIK KONSULTA PODOLOGIKOA Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU
ONGIZATEAREN
ZUTABE, OINEZ
EDONORA HEL
ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

BIGAREN ESKUKO AZOKA MAIATZAREN 10EAN

Gaur egungo kontsumo ohituren eraginez, sarritan oraindik ere balio duten objektuak bazterten ditugu eta erabilgarriak izan daitezke beste pertsona batzuentzat. Hori dela-eta, Uribe Kostako Mankomunitateak bigarren eskuko azoka antolatu du maiatzaren 10erako. Hondakintzat jotzen diren objektu asko berrerabili, balioa eman eta erabilgarri mantentzeko aukera paregabea da, antolatzaileen esanetan. Interesatuak izena eman dezakete erabiltzen ez dituzten objektuak saltzeko, apirilaren 25a baino lehen. Saltzeko eta truke egiteko postuak egongo dira. Horiek esleitzeko lehentasuna Uribe Kosta Mankomunitatea osatzen duten udalerrietan errodatuta dauden auzotarrek eta aurreko merkatuetan parte hartu ez dutenek izango dute lehentasuna.

Info+: www.aukeraon.net

NEKAZARITZAREN ETA ARTISAUTZAREN ZITA

Nekazaritza eta Artisautza produktuen Azoka antolatu du Berangoko Simon Otxandategi dantza taldeak maiatzaren 4rako, domeka. XXI. edizio honetan, egur-taila, buztintzeta eta imitaziozko bitxiak egiteko tailerrak egongo dira, besteak beste. Horrez gainera, azokan egongo diren postuetan hainbat produktu dastatu eta erosi ahal izango da, hala nola, taloa, gazta, ezti, kontserbak, txokolata eta txakolina. Horregaz danagaz batera, ohi dan legez, Euskadiko XVI. Euskal Pastel Txapelketa egingo dute.

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

Osasunerako ibilbideak Jarduera fisikoa areagotzeko hiru ibilbide diseinatu dituzte



Ibilbideek Berangoko ondarea ezagutzeko aukera ere eskaintzen dute

Herritarrek ibiltzera eta jarduera fisikoa areagotzera bultzatzeko hiru ibilbide diseinatu dituzte Berangon, tokiko Udalerren eskumenez. Udalerrian hainbat karretel informatibo kokatu dituzte, ibilbideen nondik norakoak azaltzen dituztenak, hala nola, horien zailtasun maila eta aholkuak. Ibilbideetako batek Burdin Hesia izpide (4,77 kilometro), beste batek Munarrikolandako trikuharriak (10,7 kilometro), eta hirugarrenak udalerriko ondare historiko-arkitektonikoa (4,85 kilometro).

Lehenengo ibilbidean, 1936an erai-

kitako Burdin Hesia zeharkatzen du. Gerra zibilean Bilbo hiria babesteko erai- kitako defentsa hori Arenen dago, eta lubakien bitartez komunikatuta zeuden lau metrailadore kokagune aurki daitezke. Ibilbide megalitikoan, Berangoko eta Sopelako mugan dagoen trikuharria aurki daiteke. Eneolitiko garaikoa da, eta hareharrizko bost tumulu hartzen ditu, trikuharri batez gain.

Azkenik, herri ibilbideak udalerriko eraikin esanguratsuenak hartzen ditu, hala nola, bertoko hainbat eliza, dorre, errota eta baserri. ○

Aktualitatearen alde ezberdinak konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**
sustapena@argia.com · 943 37 15 45

Galín, Roman, Ormazá eta Arrieta > Dementia taldea

“Ez dago ezer definitzen gaituenik, abestiak oso ezberdinak dira”



N. Galínek, J. Romanek, J. Ormazak, O. Arrietak eta I. Justok (falta da) osatzen dute taldea

Dementia Uribe Kostako punk-rock taldeak disko barria kaleratu du: *Kostaldeko bihotzak*. Diskoa euren kontzertuetan zein eskualdeko hainbat tabernatan eta gaztetxetan eskura daiteke, 5 euroren truke.

—**Apirilaren 11n Kostaldeko bihotzak disko barria kaleratu zutenen.**

—Bai. Lan handia izan da guretzat disko hau grabatzea, baina esperientzia oso ona izan da. Abuztuan Josemik bere parte grabatu zuen Brasileran joan aurretik, eta gero besteok grabaketarekin jarraitu genuen. Orduetik grabaketa oso irregularra izan zen, baina azken bi-hiru hilabeteetan buru-belarri aritu ginen. Guztira 8 hilabete inguru eman ditugu diskoa prestatzen.

—**Diskoak zer barritasun dakar?**

—Musika talde guztiek esaten duten bezala, lan hau helduagoa da. Talde moduan hasi ginenean bost abestiko make-ta bat grabatu genuen. Horretan gure estiloa aurkezten genuen, baina ez genuen

ahalegin handirik egin. Oraingoa disko oso bat da, eta askoz ere landuagoa.

—**Zer musika estilo landu duzue eta zeintzuk gai jorratu dituzue?**

—12 abesti grabatu ditugu eta denetarik jorratu dugu horietan. Punk-rockean oso zaila da etiketatzea. Estilo pertsonala da. Ez dago definitzen gaituen ezer, eta abesti oso ezberdinak daude horien artean. Oro-

«Zaila da punk-rockean etiketatzea, gurea estilo pertsonala da»

korrean gai aldarrikatzaileak jorratu ditugu, musikarekin baita bizitzarekin lotutako gaiak ere.

—**Danontzat gaztetzeari egin zenuen aurkezpena. Jendea gogotsu dago zuek ikusteko eta disko barriak zer dakarren entzuteko, ezta?**

—Bai, jendea gogoz dago. Gure inguruan lagun ugari dago, eta beti egon dira guri laguntzen. Intriga moduko bat sortu dugu horien artean, eta zer egin dugun jakin nahi dute. ○

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

UKnatura
ZITEK PORTUGALSTE
ESKOLA SUPERIOR DE MÁQUINA, PORTUGALSTE
MARIA DIAZ DE HARO, 68
48900 PORTUGALSTE (BISKAJA)

2013-2014 KURSOA

- *BIOERAKUNTZA TAILERRAK
- *ARTISAU YABOIAK eta KOSMETIKOAK
- *BIOERAKUNTZAKO PROIEKTUAK
- *ENERGIA BERRITZAGARRIAK
- *HERRAZH KAZAK

eta askoz gehiago...

www.uknatura.org 692705471 / 646742241

COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industriala
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osogarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo)
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezavillar.com

zaindu
Esku Terapia Zentrua
Osteopatia - fisioterapia

Ane Nafarrate Martin
Doctor landa 4, Sopela
Telf.: 946026779

BOSGARREN EDUKIONTZIA URDULIZEN

Maiatzean abiaraziko dute Urdulizen bosgarren edukiontzia ezartzeko bigarren fasea. Dagoeneko hamar daude udalerriko zenbait gunetan, eta bigarren fase horregaz beste 14 edukiontzia jarriko dituzte. Horrela, herri osora hedatuko dira. Apirilean ekimena gizarteratzeko kanpaina egiten ari dira.

GORLIZKO EUSKARA EZAGUTZEKO IKASTAROA

Maiatzeko lau eguztenetan (hau da: 7, 14, 21 eta 28) Gorliz bertoko euskara, ahozko ondarea eta toponimia ezagutzeko ikastaroak egingo dituzte. Bi orduko lau saio izango dira, eta horietan Gorlizko eta eskualdeko euskaldun zaharrendik jasotako euskara, ahozko ondarea eta leku-izenak azalduko dituzte. Izena emoteko tokiko kultur etxera joan behar da, maiatza baino lehen. Ikastaroak 20 euro balio du.

ELKARTASUN ESNE-BATZEA PLENTZIAN

Maiatzaren 11n, domeka, esnea batuko dute Plentziako Udaletxeko plazan. Hitzordua 10:30etik 14:30era jarri dute. Lortutako esne guztiagaz hainbat elkartasun-ekimen bideratuko dituzte, antolatzaileen arabera. Hala, jendea hurbil dadin, txokolatada egingo dute esnea eramaten dutenen artean. Horrez gain, moto-erakusketak ere egingo dute.

Mankomunitatea

Bertoko euskara izan dute izpide Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren finalean



P. Loizagak eta M. Barañanok irabazi zuten Herritarren kategoria, N. Torralbagaz batera

Amaitu da Uribe Kostako Mihiluze lehiaketaren lehenengo edizioa. Apirilaren 5ean izan zen finala, eta 6 hirukotek parte hartu zuten. Horietatik, Paule Loizagak, Naroa Torralbak eta Maider Barañanok irabazi zuten Herritarren kategoria. Txikien kategoria, berriz, Elene Barrenexea, Irati Irastorza eta Mirari Gonzalezek irabazi zuten zazpi lagunentzako multiabentura goiza Trokan. Azken horiek, saria bigarren postuan gelditu direnekin konpartitzeko asmoa dute.

Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Sailak eraman du proiektua aurrera, Labayru Ikastegiak 2009an sortutako *Zer ikusi, ha ikasi* unitate didaktikoa herritarren artean ezagutarazteko. Material hori sortzeko, eskualdeko hainbat aitate-amamak kolaboratu dute, *“inguruko berbak, esaera zaharrak eta istorioak jasotzeko, besteak beste”*, jakinarazi du Alba Fatuartek, antolatzaileetako batek. Materialak hainbat urte darama sortuta, baina

oraindik ez dute lortu materiala gizarteratzea, eta Mihiluze lehiaketa aitzakiatzat hartu dute material hori gizarteratzeko.

Parte hartzaileek gogotsu hartu dute lehiaketa. Paule Loizaga irabazleetako baten arabera esperientzia polita izan da,

«Materiala interneten eskegita zegoen probak aurretik prestatu ahal izateko»

“Uribe Kostari buruzko informazioa ikasi behar izan genuen, eta interesgarria izan da”. Aurretik Mihiluze telebistako programan lehiatu nahi izan zutela aitortu du Loizagak, *“baina adin kontuengatik ezin izan genuen parte hartu”*. Hala ere, ekimen honen bitartez antzeko esperientzia bizitzeko aukera izan dute. Izan ere, probak Mihiluze telebistako programan egiten ziren berberak izan dira, hala nola, tribuaren berbak, erantzun emanak, esamesak eta potokumeak. ○

Api. 28 - Mai. 21

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **El observatorio (Elissee Ansareo)**. Maiatzaren 4ra arte. Kultur Leioako erakusketak-gelara. Doan.

BARRIKA

► **ArgiHizkiak testu-argazki erakusketak**. Maiatzaren 4ra arte. Goierriko Ander Deuna Aretoan.

SOPELA

► **El sonido de mi lapiz (Jose Luis Ferreireoren margoak)**. Maiatzaren 5etik 25era. Kurtzio kultur etxean.

ZINEMA

SOPELA

► **Hacia el sur**. Maiatzak 8, 18:00etan. Kurtzion. Doan.
► **Bram Barrabas**. Maiatzak 18, 18:00etan. Kurtzion. Doan.
► **La bicicleta verde**. Maiatzak 22, 18:00etan. Kurtzion. Doan.

BARRIKA

► **Las cronicas de Narnia: el leon, la bruja y el armario**. Maiatzak 9, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.
► **Bee movie**. Maiatzak 23, 18:00etan. Ander Deuna aretoan.

ANTZERKIA

GETXO

► **El sotano encantado (Mutis)**. Maiatzak 4, 18:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 5 euro.

SOPELA

► **Sialuk hartz txikiaren bidaia**. Maiatzak 4, 18:00etan. Kurtzion.
► **Zazpi Aldiz Elur**. Maiatzak 16, 20:00etan. Kurtzion. 9 euro.

Obraren une bat

► **Antzerkia**
Lingua Nabajorum antzezlanaren Areetan

Ez dok hiru & Tartean Teatrok *Lingua Nabajorum* antzezlanaren ekarriko du Uribe Kostara maiatzean, nora eta Getxora. Hilaren 17an izango da emanaldia, 20:00etan, Areetako Andres Isasi musika-eskolan; sarrerak salgai daude, 8 eta 10 euroan. Euskararen historia txoraa kontatuko dute Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek, Jokin Oregik zuzenduta: *“Euskaldunak historian beti ibili dira liskarretan kanpokoekin edo euren artean. Egileen arabera liskarrok sortu eta garatu dute euskara. Gatazka bakoitzari euskararen aldetara bat dagokio. Hortaz, euskararen garapena ez da inoiz geldituko, gatazka, modu batekoak edo besteak, beti egongo direlako”*.

• **Non:** Andres Isasi musika-eskolan • **Noiz:** Maiatzaren 17an

ERANDIO

► **Koka kola eta barea**. Maiatzak 15, 20:00etan. Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Doan.

MUSIKA

GETXO

► **Oskorraren The Pub Ibiltaria**. Maiatzak 3, 19:30ean. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. 7 euro.

► **Smile + Gatibu**. Maiatzak 3, 21:00etan. Ereaga hondartzako aparkalekuan. Doan.

► **Jaialdia: Emakumeak musikan**. Maiatzak 10 eta 11, 19:00etan eta 20:00etan. Areetako Andres Isasi musika-eskolan. Gonbidapenagaz.

ERANDIO

► **Ipuin-kontaketa: Zurrumuru (Andrina basandrina)**. Maiatzaren 14an, Altzagako liburutegian, eta 23an, Erandiogoko gizarte-etxean, 18:00etan. Doan.

BESTEAK

LEMOIZ

► **Euskeraz olgetan**. Maiatzean eta ekainean, astelehenero, 17:00etatik 19:00etara. Urizarreko eskolan.

GETXO

► **Hitzaldia: El tiempo entre costuras: palabras, hilos y otros misterios (Josune Muñoz)**. Apirilak 30, 19:00etan. Algortako kultur etxean.
► **Nazioarteko Dantza Eguna**. Maiatzak 10, dantzialdia 12:00etan, tailerrak 17:00etan eta gala 19:00etan. Algortako Batzokiko patioan. Doan.

GORLIZ

► **Familiarteko Berbalaguna (Gorlizko Ikastetxeko IGEK antolatua)**. Apirilak 30, 17:00etan. Kiroldegiko pabilioian.

SOPELA

► **Urko Mendi-Taldearen XXIX. Herri-Ibilbidea**. Maiatzak 4, 09:00etan.
► **Hitzaldia: Uribe Kostako bertsolaritza (Fredri Paia)**. Maiatzak 8, 20:00etan. Kurtzio kultur etxean.

LEIOA

► **San Juan jaietako kartel - lehiaketako sari-banaketa**. Maiatzak 9, 18:30ean. Aterpe Leioa gaztegunean.
► **Margolari gazteen lehiaketako sari-banaketa**. Maiatzak 11, 19:00etan. Aterpe gaztegunean.

ERANDIO

► **Gaueko argazkigintza tailerra (Radio Club Takolos)**. Maiatzak 9, 21:00etan. Madaripen.

URIBE KOSTA

► **Berbatxangoa: Eustakio Eulea Barrikako bertsolariaren bizitzari buruz**. Maiatzak 11, goizez.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]




Kanpomartxo 2014

1994tik 2014ra, urtez urte, "euskaldunon eta euskaltzaleon topagune" bihurtu du Kanpomartxo Berbots Erandion Euskaraz alkarteak. Apirilaren 13an izan zen aurten, Santimami auzoan. Dantza erakustaldia, abesbatza-kantaldia, bertsolariak, umeentzako pailazoen ikuskizuna, kontzertua, gazteen arteko olinpiadak, argazki-erakusketa, taloak, jan-edan ugari e.a. Giro ederra! Aurten, beren-beregi sortutako kanpomartxo-kanta ere bai!

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Meza Gorlizen

1937an

Meza bitxia ikus daiteke argazki honetan, Gorkizko Andra Mari basilizan, 1937an. Urte hartako ekainaren 14an hartu zuten faxistek gure ingurua eta, beraz, garaipen hura ospatzeko meza izan liteke. Irudi gogorra eta bortitza da: herritarrak dira meza entzuten dutenak eta falangistaz jantzitakoak umeak dira, eskopeta eta guzti. Falangisten ikur ofiziala ere ikusten da euren artean: uztarria eta geziak. Urtebete lehenago hasi zen altxamendu faxista Espainian, 1936ko uztailaren 17an. Hilabete batzuk geroago bonbardatu zuten Durango, 1937ko martxoaren 31n, eta apirilaren 26an Gernika; egunotan izan da urteurrena. Ekainaren 19an Bilbo hartu zuten eta hamar egunen buruan Bizkaia osoa konkistatuta zegoen Franco.

[berbetan]

Irakaslea, aktorea, ipuin-kontalaria eta clowna da Virginia Imaz (Donostia, 1962). Antzerkian hainbat urtean ibili ostean, 19 urteaz jauzi egin zuen clown alorrera, baina ipuin-kontalaritza ez du alboratu. 1979an Jose Karmelo Muñozegaz batera Oihulari Klown antzerki-konpainia sortu zuen. Clown-aren inguruko bloga idazten du sarean (gaztelerez).

Virginia Imaz

barrez bizi!

Testua: **I. Sagarmínaga** / Argazkia: **ArgazkiPress**

—“*Memoria dudanetik, antzerkia egite-
ra jolasten irudikatzen dut neure burua.
Tragedia existentziala. Ondo moldatzen
nintzen publikoari negar eragiten*”, aitortu
duzu. Gero, umorean oinarritu duzu
zure obraren zati handi bat...

—Niretzat tragikoa eta komikoa alkarre-
kiko begi-keinu baten distantziara daude,
klik batera, hautemate aldaketa batera...
Umora mota asko daude; hunkitzen nau-
ena sakonean tragedia daukana da; horre-
tan jendeak aurre egin beharreko gaia du
aurrez aurre, beldurtzen, mintzen duen
gaia, baina umore-senari esker horrekiko
distantzia hartzea lortzen du... Hori da
interesgarria zaidan umorea.

—Gaia ezezagun zaion batentzat: clown
edo pailazo, clown ala pailazo?

—Dagoeneko, ez dut hainbeste borroka-
tzen terminologiarekin. Bietan antzema-
ten dut neure burua. Teknikoki ‘clown’
aurpegi zuriko pailazo argia izendatzeko
erabiltzen da. Orain 30 urte, clown for-
makuntza jasotzeko atzerrira joan beharra
zegoen; han clown-ez bakarrik hitz egiten
zuten, pailazo, esaterako, ingelesez eta
frantsesez, ‘clown’ delako. Itzultzean “au-
togarrantzi” handiarekin etortzen ginen!

(kar, kar). Oso garrantzitsua zen ikasten
ari ginen... Susmoa dut, gure jarduna or-
duko pailazoaren egitekoetatik bereizi nahi
genuelako. Oro har, zirkuko, pistako pai-
lazoak ziren, ume-familiei begirako edo
musika-ikuskizunei estu lotutakoak, gure
kasuan euskararen babesari... Geroko be-
launaldiok horretatik bereizten zen pai-
lazoaren eskaintza genearren: helduei begi-
rakoa; antzoki, kale, ospitale, biltzarretan
taularatuko zena; malabarista, akrobata,
musikari edo bestelako abileziarik izateko
beharrik ez duena... Gaur egun, profesio-
nalen artean ere ez da ia bereizketararik

Halere, artistiko-espresibo arlo oro, azken
finean, narratologia da. Neuk argi bereiz-
ten ditut: ipuin-kontalaritzan Virginia
naiz, Virginia publikoa, ez naiz pertsonaia
bat, ez nago mozorratuta, ez atrezorik...
Clownean, ez naiz Virginia, banaiz baina
ez... Halako eskizofrenia goxoa da. Taula-
ratzen den pertsonaia pailazo bat da, Pau-
sa, nire alter egoa; nire zati batekin lotura
duela uste dut, beldurra eta zentsura bai-
no lehenago nolakoa zen gogoan duen
zatiarekin, batzuetan ume txiki baten ja-
rrera gogorarazten duena: emozioen bat-
batekotasuna dimentsio surrealista, gaita-

**“Bost urtean clown ikastaroak egiten
jarraitu nuen, umorerako ez nuela
balio sinetsita!”**

egiten, ‘clown’-ek beregain hartzen ditu
mota guztietako pailazoak.

—Clown legez ezagunago izan arren,
ipuin mundua oso hurbil daukazu, ezta?

—Clown-antzerkia maskaradun antzer-
kia da; artearen komediarekin, bufoien
ogibide zaharrekin lotua. Bestetik dago
narratzailearen lanbidea, kontalariarena.

sun enpatikoa, tolesgabetasuna, beti jolas-
teko jarrerarekin, dena interesgarri... Bai-
na, hori dena ez naiz ni, oso urrun ez
badago ere. Gorputz bera dugu akolatuta,
baina clowna ateratzean Virginia pauso
bat atzerago da, Pausak jokatzen du.

—Gaur egun clowna hautetsi duzu?

—Ez dut uste. Hasieratik biak egon dira



indartsu, eta orain ere; oro har, erdi eta erdi lanean nabil... Martxoan clownarena izan daiteke, apirila ipuin-kontalariarena e.a. —**Diozunez:** “*Errailetan sufritu nuen su-durra jantzita izan nuen lehenengo esperientzia hura; nire egoak sufritu zuen*”. Elkarrizketaren batean azaldu zenuen, andrazkoak hezi gaituztela arduratsuak izateko, seduzitzeko eder egoteko; hala agertuz umorea egitea, ezinezkoa edo dela.

—Ezinezkoa baino, gehiago kostatzen dela esango nuke. Historikoki emakumezkooi zaintzan jarduteko, horretaz arduratzeko, eta sedukziorako hezi izan gaituzte. Rol bi horiek oso estresagarriak dira; lehenengoan bizia dagoelako jokoan; bestean itxura eta nolabait egoa, “*seduzitzen ez badut ez dut munduan nire lekua aurkituko; gustagarri ez banaiz, ez naute maiteko...*” Estres hori da umorearekin lehian dagoena. Gizarte, erlijio edo politika kontuetan, hezi gaituzten moral bikoitzagatik, plazera ukatu zaigu, bai gizonezkoei bai emakumezkoei, baina emakumezkoei askoz ere gehiago! Eta plazerarekin batera, barrea! Barrea ondo egotearen, ondo pasatzen ari naizenaren seinale da; besteen aurrean agerrarazten zaitu, seduzitzen, besteen barreak erakartzen gaitu, interesgarri bihurtu... kutsakorra izan ohi da. Plazer-muskulu hori ebakita dugu, plazererako baimena moztua. Hasieran asko sufritu nuela diodanean, hainbat emakume bezala, zaintza-arduratarako, perfektu izateko, arduratsu eta egitekoak beti herenegunerako eginda izateko hezi mindutelako da; 3 neba ditut, ni nagusia, eta emakumezkoa. Clownean baldar eta tontolapiko agertzeko eta jendaurrean izugarri kostata egin behar nuen, oso behartuta lotzen zen; ordura arte irakatsitakoa ezin nuen baliatu. Baina, clown formakuntza eta ikastaroak egiten jarraitzeko gakoa izan zen, beste pertsona batzuk inprobisatzen ikustean, oso ondo pasatzen nuela; gehiengoak gizonezkoa zen. Ni erdi-ezkutuan egoten nintzen. Barreak on egiten zidala konturatu nintzen. Bost urtean clown ikastaroak egiten jarraitu nuen, baina umore-

rako ez nuela balio sinetsita! Baina hain aldarde onean irtetzen nintzen... Txute ikaragarria zen! Nirea prozesu luzea izan arren, orain eskaintzen ditudan ikastaroak hain luzeak ez izatea ahalegitzen naiz! (kar, kar) —**Umorea eta sexua zure hainbat lanetako oinarri dira, adib.:** *Sex o no sex*, martxoan Erandion eskaintakoa.

—Oihulari Klown, ezagunago egin da

“Umorea biziraupen-estrategia den dimentsio bat badago; barrea gaitz psikologikoak gaintitzen lagun dezake”

“clownclusiones” delakoengatik: hitzaldi, mahai-inguru, biltzar edo foro serio protokolo handikoetan, diskurtso intelektualen esparruetan, agertzen gara eta bat-bateko-tasunezko clown antzezpenekin; kontratupean noski. Harrituta, antolakuntzari begira eta segurtasun-indarrak deituko ei dituzten zain lotzen dira! Gure egitekoa zerbait katartikoa sartzea izaten da, clown jokua tolesgabetsunetik zer esanguratsua eskaintzea. Askotan pailazoak, tolesgabetsunik, denek buruan dutena eta inork esaten ez dioena esatera ausartzen direlako. —**Modurik probokaitzaileenean...**

—Bai, baina xamurtasun osoz. “Asmakuntza” hau maisu dugun Bataclown konpainiatik ikasi genuen, guk ekarri hona lehenengoz, eta urte asko daroagu hori egiten. Familia-ume-zirkuari lotutako idearekin

“Ikuskizun denak daude emakumezkoei zuzenduta (...); programatzaile asko oraindik ez da konturatu...”

apurtzean, nolabaiteko iraultza izan da. Egitekoetako bat bufoien ogibide zaharra berreskuratzea da: nobleziaren edo erregeren parodia egiten zuten, azpijoko politikoak azaleratzen... Gure kasuan, batez ere, eremua akademikoa da, eta ez dugu bufoien samintasunik; clown kodean tolesgabetsunaren eta xamurtasunaren esklabota-

sunetik lan egiten dugulako. Halere, gure ustez ere, pailazoak baztertu bozeramaille dira, eta agerikoa bistako egiteaz aduratzten dira! Beraz, lehen aipatutako esparruetan alboratutako, estalitako norbait edo zerbait bada, horien larrutan jarri eta hori ikusarazteaz arduratuko dira. Clown jokua arlo sozial hau oso ederra iruditzen zait. Ospitaleko pailazoekin ere alkarlanean

jardun dugu, Mugarik Gabeko Pailazoekin iheslarien esparruetara joan gara e.a. Umorea biziraupen-estrategia den dimentsio bat badago, ez da lehenetsunezko garrantzitsua, baina horiek bermaturik, barrea gaitz psikologikoak gaintitzeko lagunagarri izan daiteke, gatazka armatuetan edo beselakoetan. Kontua da, “clownclusiones”-etara itzuliz, garai batean sexualitatea eta gazteak ardatz zituzten jardunaldi batzuetan parte hartu genuela. Handik asko ikasi genuen eta indarberrituta itzuli ginenean; eta *La Espena* (printze urdinaren zain, andrazko pailazo biren kondoiaren erabilera negozioazioa...) sortu genuen. Jabekuntza obra bat da, eta 25 urteren ostean taularatzen jarraitzen dugu, institutuetan. Batetik, gazteengan daukan eraginak liluratzen nau, bestetik, pena handia sentitzen dut, orain-

oraindik taularatzen dut. Ondoren, nire sexualitate-hastapenen berrikuste bat egin nuen clown kodean; *Sex o no Sex*. Baina, horiez gainera beste hamaika gai lantzen ditugu, sexuarena, ziurrenik, gure lan-ildo berantiarrena da; errazegia iruditzen zitzaigulako. Bada umore mota bat tripetan jotzen duena: heriotza-sexua-kaka-ipurditxis-arekin loturikoa. Halakoak jorratzean,

“Egia da, bai, erritu-data horietan halako lanen eskari handiagoa nabaritzen dugula”

garai guztietako pertsona ororekin harremana dutenez, denontzat da interesgarria, barregarria; eta errentagarria da. Gero eta konpainia gehiago dago gai horien inguruko ikuspegi propioa eskaintzen, eta batez ere, emakume gehiago; hori da interesgarriena niretzat. Orain dela gutxi arte emakumeak eszenan alde erromantikoago bat islatu ohi zuten, sexua gizonezkoen gaia zen... Halako batean “debekualdia” amaitutzat jo zen; beharrezkoa zen! Oholta gainean zakilak negarrenez, gizonezkoen sexu-fantasiak eta erreferentziak ikustera ohituta geunden, eta horiek eragindako sufrimendura ere bai! Sexu-femeninoaz ezagutarazten zena ikuspegi partzialekoa zen, gizonezkoen begietatik. Azken 5-8 urteotan emakumezko asko dabilta hone-taz berbetan! Batzuetan, oraindik, ez dago-

kien ahotsarekin, ahots kolonizatu batekin; ustez esan beharko luketena esanez, eurenak ez diren fantasiak jorratzen... Egia da, ahots propioz hasia ez dela erraza... Pailazo lekutik, agian, errazago da...

—**Arreta deitzen dit, zuk ere aipatu duzu, “egun berezien arabera” gai-arlo jakin bateko ikuskizunak gehiago taularatzen dituzuela: martxo-emakumea, apirila-ipui-**

garai guztietako pertsona ororekin harremana dutenez, denontzat da interesgarria, barregarria; eta errentagarria da. Gero eta konpainia gehiago dago gai horien inguruko ikuspegi propioa eskaintzen, eta batez ere, emakume gehiago; hori da interesgarriena niretzat. Orain dela gutxi arte emakumeak eszenan alde erromantikoago bat islatu ohi zuten, sexua gizonezkoen gaia zen... Halako batean “debekualdia” amaitutzat jo zen; beharrezkoa zen! Oholta gainean zakilak negarrenez, gizonezkoen sexu-fantasiak eta erreferentziak ikustera ohituta geunden, eta horiek eragindako sufrimendura ere bai! Sexu-femeninoaz ezagutarazten zena ikuspegi partzialekoa zen, gizonezkoen begietatik. Azken 5-8 urteotan emakumezko asko dabilta hone-taz berbetan! Batzuetan, oraindik, ez dago-

ere bai; gaur egun, ikuskizun den-denak direlako emakumezkoei zuzendutakoak, antzerkera, zinema doazen, edo liburuak inakurtzen dituzten gehienak emakumezkoak direlako!” Sortzaile guztiak eurei begira sortzen ari gara, baina programatzaile asko oraindik ez da konturatu. Publikoaren krisiaz hitz egiten dute, baina, espero duten publiko hori: gizonezkoa, kaukasorria, adin eta maila sozio-ekonomiko jakin batekoa da; horri begira programatzen dute, baina bera poteoan edo futboleko dago! Hurbiltzen direnen araberrako gaiak lantzen dituen obra eskainiz gero, esan dezaket, publikoa etorri etortzen dela. Antzerki-ikusleen gehiengoak emakumezkoa da! Gure konpainian gizonezkoek egiten dituzten ikuskizunak ere genero ikuspegiarekin sortutakoak dira, esaterako, *Desgenados* (bere buruak berasmutzen dabilta, maskulinitate berriaren bila, paradoxei barre eginez...). Gero, genero ikuspegi eta emakume protagonista dituzten 6-7 lan ditugu: publizitate, kontsumo, osasuna, maitagarrien ipuin, afektibitate-sexu hezkuntza eta abarri buruzkoak. Egia da, erritu-data horietan halakoen eskari handiagoa nabaritzen dugula; agian, urte askoan mota horretako gure eskaintzak zegoen hutsunea bete izan duelako. Gainontzeko hilabeteetan askoz zailagoa da leku bat egitea halako lanei; ez bakarrik zirkuitu ofizialek eskatzen ez dutelako, emakume taldeek ere ez dutelako eskatzen. ○

Sortzen eta sortzen

—**Sorkuntza edo lan barriren bat pres-tatzen zabilta?**

—Krisialdiak eragin handia izan du sektorean; kultura eta hezkuntza ez gara lehenetsunezkoak, eta horietan murrizketak nabariagoak dira. Lankide asko oso txarto pasatzen ari dira. Ni ez naiz kexatzen, ipuin, formakuntza-tailer eta clown ikuskizunen artean, batetik eta bestetik, moldatzen naiz. Lan gutxiago dagoenez, formakuntzarako eta sorkuntzarako den-

bora gehiago dugu. Azken urte eta erdian *Consumiendonos* eta *Sex o no sex* estreinatuta ditut interpretazio alorrean. Eta zuzentzen, hainbat proiektu ditugu: *Desgenerados*; elkartasuna, jabekuntza, ekofeminismoa e.a. lantzen dituen lana aurkeztuko dugu ekainean; otzantzea, etxekotzea-askatasuna harremana jorratzen duen beste bat e.a. Pixkana baina gelditu gabe ari gara sortzen; hori da egiten dakiguna, gogoko duguna... “Saldu-

ko” ez bagenu ere, ikuskizunak sortzen jarraituko genukeela uste dut; dagoeneko gure bitzita-eginkizuna da, hau egiteko jai ohi naiz, nire patuarekin bat natorrela esango nuke, gizateriaren onerako ekarpen bat egin dezakedala egiteko honetatik. Ikusleak barrez edo hunkituta ikustean, umeen aurpegiak ipuinak entzutean, emakumezkoak barrez lehertzen... Afrodisiakoa da niretzat, ordain ezina, asebetetzen nau.



Vietnamgo bihotzetik

Iragan udagoiengan bisitatu zuen Vietnam Zuriñe Unzueta Muñoyerro algortarrak, eta irudiok partekatu gura izan ditu UK-ko irakurleakaz. Argazkilariak, ordea, ez zuen egin gura izan ohiko turismoa eta motorrez zeharkatu zuen herrialdea hegoaldeetik iparraldera: 700 kilometro inguru egin zituen. Bidean topatutako pertsonak erretratatu zituen bere kameragaz. Oso pertsona irekiak eta jatorrak Unzuetak dioenez. Euretako bakoitzaren atzean historia bat dagoela azaldu du eta horiek ezagutu gura izan zituen...

Argazkiak: **Zuriñe Unzueta Muñoyerro**








Urrezko urak > Asuko portu zaharrari buruzko liburua kaleratu dute

Erandioko Asuko portua: itsasadarreko makinariaren engranajearen pieza

Itsasadarretik Asua auzorantz sartzen den kanaleko portuak bazeukan garrantzia, Carlos Rilova Jerico historialariaren ikerlanak aditzera emoten duenez. Asuko portu zaharraren historia batu du liburu batean, Erandioko Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren beka bati esker.

Urrezko urak. *Asuko portu zaharraren historia* idatzi du Carlos Rilova Jerico historialari gipuzkoarrak. XV. mendetik eta XX. mende hasierara arteko historia osatuz. Nerbioi itsasadarretik Asurantz sartzen den kanalean, badirudi portu-instalazio txiki asko zegoela, batzuk publikoak, besteak pribatuak; hau da: portu txikiz osatutako portuen multzoa zela, portu garrantzitsu moduan finkatzeko asmoa zekana. Une jakin batean, gainera, emoten



Liburuaren azala

du Portugaleteko eta Bilboko portua bezain garrantzitsua izan zela: portu bien artean gune organikoa zen eta badirudi gero eta garrantzia handiagoa hartu zuela.

Esaterako, Rilovak topatutako agirien artean, inguruko porturik garrantzitsuen gisa agertzen da 1820ko agiri batean.

Portuaren garai oparoa izan zen XVIII. mende amaieratik XIX. mende hasierara

Asuko portuari buruz dauden agiri zaharrenak Behe Erdi Arokoak dira, horregatik hasten da liburua XV. mendean. Bandoen gerra garaian edozer izan zitekeen gerrako harrapakin, areago Bilbo eta Asua bezalako guneak: negozio garrantzitsua ziren. Baina Bandoen gerra amaitzean Errege-portu bihurtu zen itsasadarra. Horrek esan nahi du nolabait ukiezina zela, jabetza publikoa zelako.

Botere-zentralizazio horren helburua



Asura sartzen den kalana, inguru honetan koka zitekeen portua

zen jendartea eta ekonomia indartzea, gobernatzen zuen dinastiaren onurarako. Hau da, portuari ere erregeari zergak ordaintzen zizkieten, eta erregeak babesten zituen. Horrela, Asuko portua garrantzia hartuz joan zen.

Rilovak uste du XVIII. mende amaieratik XIX. hasierara izan zela portuaren

garai oparoena. Adibidez, lan handiak egin ziren porturako sarbideak eta zama-lekuak hobetzeko. Jabe partikular asko zegoen: lur-eremu bat mugatu, ahal moduan txukundu eta zegozkien zergak ordaintzen zituzten. Ibarra familiak ere parte hartu zuen Asuko portuan. Esatea, XVIII. mendea baino lehen, gitxi zekiela zenbat

itsasontzi sartzen zen eta zenbat ordaintzen zuten portua erabiltzeagatik: “*murgildutako ekonomiaren*” parte zen. Orduko datu apurrak dira autoritate batzuek jakin gura izan zutelako horren barri; egoera aldatu zen XVIII. mendean.

Gaur egun arte

Liburuak 1931rainokoak dakartza. Egileak dioenez, luza zitekeen, baina 30eko urteak momentu egokia dira ikusteko noraino iritsi zen Erandioko ekonomia por-

Gaur egun ere Erandio portu-eremu da, itsasadarra portu-eremu den heinean

tu eta industria-gune gisa: Industrializazioa amaitu eta itsasadarren aro ekonomiko gorena igaro zenean. Gerora ere, portuen makinariaren engranajearen barruan jarraitu du Erandio: Bilboko portua oso garrantzitsua izan da, eta Erandio bere baitan. Birmoldaketarekin, 80ko urteetan, jarduera murriztu bazen ere, gaur egun portu-eremu izaten jarraitzen du Erandio, itsasadarren portu-eremu izaten jarraitzen duen heinean. ○

Carlos Rilova Jerico > historialaria eta ikertzailea

“Ezin uka Erandio kontuan hartu beharreko pieza dela itsasadarreko engranajea”

—Hainbat izen aipatzen duzu, Ibarra familia kasu, XVIII. mende amaieran. Portuaren garrantziaren adibide da?

—Ibarra familia tartean bazegoen portuak garrantzitsua behar zuen: itsasadarren makinaria handiaren engranajearen parte zen Asua. Gainera, Karlistaldiaren ostean, kalteengatik erreklamazioa egin zuten. Euskal Industrializazioaren enpresarik handienetakoa izango zena horrela jarduteak esan nahi du Erandio

garrantzitsua zela eurentzat.

—Batzuek ez dute uste horren garrantzitsua zenik, Pascual Madozek kasu.

—Liburua hasten da galdera batekin: beharrezkoa zen beste liburu bat idaztea Bizkaiko portu bati buruz, orain arte ezer idatzi ez bada ere? Hainbat agiri abiapuntu, aztertu genuen pertsona horien aburuz zer garrantzia zeukan portuak. Bestalde, XIX. amaierako geografia-hiztegi nagusiak hartu genituen,

Madozena kasu. Historialariak egin behar duena da egiaztatu, azken batean, historia zientzia delako. Madozen iritzia garrantzitsua da eta kontuan hartu beharrekoa, baina alderaketa egin behar da autoritateek eta agiriak dioten artean. Nire ustez ez da gauza bat, ez bestea: ez Madozek zioen garrantzia gabekoa, ez beste agiri batzuek dioten bezain garrantzitsua. Baina ezin uka Erandio kontuan hartu beharreko pieza

dela itsasadarreko engranajea.

—Zaila izan duzu agiriak aurkitzea?

—Ikerketetan zalantza egoten da hipotesia frogatzeko daturik lortuko duzun. Baina arraroa da ezer ez topatzea; areago, oraingoan bezala, ikerketa norbaitek iradokitzen duenean: Erandioko Udalak beka atera zuen lan hau osatzeko. Artxibategi desberdinetako agiriak alderatuta puzzlea osatu da, baina lan handiarekin. Errazenetik hasi ginen: inork gutxi zalantzan jartzen du Bilboko portuaren garrantzia, ez bakarrik Bizkaian, baizik eta Europa mailan; hori begibistakoa da. Ondoren fase zailena dator: sakabanatutako piezak elkarrekin lotzea. Baina emaitza nahiko gogobetegarria da eta, gainera, gaur arte ilun

zegoen eremu bati argitasun pixka bat eman diogu. Itsasadarreko makinariak pieza hau falta zuen.

—Zer garrantzia dauka lanak zuetzat?

—Oso interesgarria izan da ikerketa egitea, nahiz eta zalantza txikiak izaten diren ikerketak abiatzean, eremu ezezagunetan murgilduko zarelako. Orain arte, Bizkaiko eta Gipuzkoako kontuak ikertu ditut batez ere: gustuko dut herri-eremutik irteera, oso interesgarri deritzot. Erandioko kasuan, gainera, liburua argitaratzea eta zabaltzea primerakoa da. Izan ere, ikerketak askotan ez dira kaleratzen. Bizkaiko gaiei buruz artikulua idatzi ditut, baina argitaratu dudan lehen liburua da. Aurrez artikulua horiek eginagatik ausartu nintzen



liburu hau egitera. Garrantzitsua da horrelako lanak eta liburuak egitea, bere inguruaz bakarrik ikertzen duen historialariaren estigma kentzeko; nik ez dut mugarik jartzen eta, zentzu horretan, Erandioko liburua bikaina da. Jendeak gaia ezagut dezan balioko ahal du! ○



BETIKO

IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarria



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO




GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

XX. Fant zinemaldia

Bilboko **zinema fantastikoaren** jaialdia maiatzaren 9tik 16ra izango da



Egitaraua: www.fantbilbao.net

Zinema fantastikoan eta beldurrezkoan berezitutako Bilboko zinemaldiak, FANT-ek, XX. urteurrena betetzen du aurten. Jaialdian parte hartzeko aurten 576 film jaso dituzte, pasa den ekitaldirako baino 92 lan gehiago; eta 37 herrialdeetatik igorri dituzte: Euskal Herriko lanez gainera, Espainiaren ostean, *“Alemania da lan gehien bidali dituen Europako herrialdea, baina beste herrialde batzuetatik ere jaso dira, adib.: Kroazia, Irak, Iran, Egipto, Zipre, Norvegia, Erresuma Batua, Mazedonia, Nepal, Amerikako Estatu Batuak, Kanada, Argentina, Taiwan e.a.”*.

Aukeraketaren ostean, azkenean, zi-

nemaldiak 40 film luze eta 40 film labur inguru eskainiko ditu; 11 Sail Ofizialean lehiatuko dira (maiatzak 11-14; 17:30, 19:45 eta 22:00; Alondegiko Golem zineetan. Gainontzeko emanaldietarako begiratu egitaraua, sarean).

Maiatzen 9tik 16ra, zortzi egun iraungo dituen FANT, ohi legez, hainbat ataletan banatzen da, eta horren ingu-

«la 40 film luze eta 40 film laburrek osatzen dute egitaraua»

ruan beste zenbait ekimen antolatzen dituzte: *“Sail Ofizialaz gain, Fant Maisuak, Koreako zinema-zikloa, Fant Erreskatean, Fant Laburrean, Fant2 Fun, Fanteskola, Calle13 LittleSecretFilme, Misfits telesaila eta Nontzefilm lehiaketako lanez, Trailer falsuen lehiaketakoez, eta masterclass-ek gozatzeko aukera egongo da”*.

Atal Ofizialeko pelikularik onena, gidoirik onena eta zuzendaritarik barriarzaileena sariak banatuko dituzte, azken biak Euskadiko Gidoigile Elkarteak eta Fas Zine Klubak erabakiko ditu. Bestalde, film luze onena, film laburrik onena eta euskal laburrik onena aukeratu duen epaimahaia hauek osatuko dute: Matthew Robbins gidoilari, zuzendari eta ekoizleak; Carlos Areces antzezleak eta Andrea G. Bermejo kritikariak. ○

MAZ Basauri jaialdia

Maiatzeko azkeneko **hiru zapatuetarako** hainbat kontzertudun **egitaraua** prest dute



Sarrerak: hilaren 17koak 10/12 euro; besteak: 12/15 euro; abonauak 25 euro+banaketa-gastuak

Hirugarren ekitaldia du aurten Basauriko MAZ jaialdiak. Maiatzeko azken hiru zapatuetan izango dira emanaldiak, kontzertu nagusiak 21:00etan hasiko dira Social Antzokian. Lehenengo egunean (maiatzak 17) Zea Mays eta Willis Drummond taldeek eskainiko dituzte zuzenekoak, ostean DJ Set formatuan Las Tea Party, Planetaleta eta Les Alborregach-ek jardungo dute; bigarren emanaldirako (hilak 24) Russian Red eta Smile-ren kontzertuak iragarri dituzte, gero DJ Set formatuan We Are Standard DJs, Optigan I eta Dino Velvet; eta azkenik hirugarren hitzordurako (hilak 31) taldeak

hurrengoak dira: The Pains Of Being Pure At Heart eta Señores, eta ondoren DJ Set formatuan El columpio asesino DJs, Mr. Chase eta Penny Lane. Halaber, kontzertu nagusien aurretik, 19:00etan kalean doako kontzertuak ere antolatu dituzte: hilaren 17an, Txiki MAZ ekitaldian (12:00) The Magic Teapot, Ipuin kantuak eta Nikolasa eta Sumendia egongo dira, arrastian (19:00) ERO eta La hora del primate; hilaren 24an (19:00) Ricardo Vicente eta The Great Barrier; eta hilaren 31n (19:00) Juanita y Los Feos eta Novedades Carminha. ○

Info+: www.mazbasauri.com

lehiaketa > Bilbo Hiria

Bilbo Hiria pop-rock lehiaketako XXVI. ekitaldian izena emoteko epea zabalik dago maiatzen 15era arte. Ohi legez, hiru estilo-multzotan banatu dute lehiaketa: Pop-Rocka, Metala eta hirugarrena Elektronika eta Beste Joera Batzuk; horietako bakoitzean sartzen diren aldaeren zerrenda lehiaketako webgunean dago. Pop-Rock eta Metala kategorietako lehenengo sariak 5.000 eurokoak dira, bigarren sariak 2.500 eurokoak, eta hirugarrenak 1.200 eurokoak. Elektronika eta Beste Joera Batzuk atalean sari bakarra dago, 2.200 eurokoa. Horiez gainera, badira bestelako sariak ere, adib.: kontzertuak eskaintzeko aukera Bilbon (Aste Nagusian eta Bilborock aretoan) eta beste jaialdi batzuetan (Azkena Rock Festival), musika tresnak e.a. Parte hartzeko betebeharrak eta baldintzak hurrengo helbidean:

Info+: www.bilbao.net/bilborock

Ereagan > Gatibu eta Smile

Ereaga hondartzako aparkalekuan Getxoko Udalak antolatu ohi duen kontzertuetarako aurtengo gonbidatuak Smile talde getxoiztarra eta Gatibu dira. Hitzordua maiatzaren 5ean ipini dute, 21:00etan. Batetik, John Franks buru duen talde getxoiztarak *Out of Season* hirugarren laneko folk, rock, country zein folk-rock kaliforniarreko doinu eta kantuak aurkeztuko ditu; bestetik, Alex Sardui, Haimar Arejita, Gaizka Salazar eta Mikel Caballeroren taldea ezagun egin duen bizkaiera zaporeko rockaz gozatzeko aukera egongo da.

diskoak

Kanala
Enkore
Oinuka / Elkar



Bilboko Errekaldeko laukotearen bigarren disko luzea da *Kanala*. 10 abestik osatzen dute lan barria eta hardcore doinuetan oinarritzen da euren eskaintza: *“taldeak berak bizitzarekiko duen jarrera sumatzen da; bizitza, ez baita inolaz ulertzen lengoia musikalik gabe, batzuetan sendoa eta zuzena, bestetan samurra eta ameslaria, beti hurbila”*.

Berriz
Ezinean
Oinuka



Lau urteko etenaren ostean, hirugarren diskoagaz itzuli da Azpeitiako taldea. Oihan Amezuak (bateria), Oier Eceiza (gitarra eta koruak), Iban Amenabarrek (ahotsa eta baxua) eta Oihan Lizaso (gitarra eta koruak) jatorrizko laukoteak barriro eutsi dio abiadura biziko hardcore erritmo eta ahots melodikoaren emanaldiei.

Voltaia
Voltaia
Autoekoizpena



Itaka eta Got Ham musika taldeetako musikariek osatzen dute Voltaia hirukotea: Unai Eizagirre (baxua eta ahotsa), Jon Duran (bateria) eta Ion Brakamonte (gitarra). Zazpi kantuk osatzen dute taldearen izen bereko estreinako lana. Zumaiako taldeak rock gogorretik eta stoner doinuetarainoko olatuen gainean pausatu du bere proposamena.

uk **adi lagun!**
Plaza atalean zure iritzia* irakurri gura dugu; bidal egiguzu!
*(sinatuta eta gehienez 330 berba)



Getxoko Andra Mari
Gasolindegia

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]

ArgIHizkiak martxan III. ekitaldia du aurten argazkietan oinarritutako testu laburren lehiaketak

Uribe Kostako herri danetan ibili da ArgIHizkiak 2013ko argazki eta testu erakusketa, gaur gaurkoz azken geltoki izango duen Goierriko Ander Deuna aretoan (Barrika) ikus daiteke, maiatzaren 4ra arte. Hala, erakusketa horrek oinarri duen lehiaketa abiatzeko sasoia heldu da, horrenbestez, hasi begira, hasi idazten argazkietan oinarritutako euskarazko testu laburren lehiaketan, ArgIHizkiak-en, parte hartzeko lanak.

Aurten ere Uribe Kostako hamar argazkilari profesional zein zaleturengana jo dugu testuak oinarrituko diren argazkiak eskatzeko, horiek dira: Alfredo Aldai, Mikel Martinez, Andoni Lubaki, Asier Menteak, Jon Astorquiza, Zuriñe Unzueta, Endika Martinez, Victoria Bengoa, Gari

**«Parte hartzeko epea:
maiatzaren 5ean hasita,
hilabetez, ekainaren 5era»**

Bilbao eta Ana Gonzalez. Horien irudiek iradoki lezaketena izango dute berbagai ArgIHizkiak-en lehiatuko diren testuek.

Lehiaketa gure eskualdean antolatzen bada ere, 16 urtetik gorako edonork bidal dezake testua ekainaren 5a baino lehenago. Testua euskara batuan edo euskalkian idatz daiteke; eta prosa, olerki, bertso,




Info: www.argihizkiak.com

haiku e.a. izan daiteke. Lehiatzeko kategoria bi daude: bata, testu labur-laburrena (gehienez 160 karaktere), eta bestea, testu laburrena (gehienez 100 berba). Kategoria bakoitzeko 200 euroko sari bana dago. Testu finalistak ere antolatuko dugun argazki-testu erakusketa ibiltarian jasoko dira.


Egizu Getxo Euskaldun elkarteak eta UK aldizkariak antolatzen dugu ekimena, hurrengoak alkarlanean: Getxo, Leioa eta Berangoko udalak, Uribe Kostako Mankomunitatea, Berbalamiñe eta Leioako Berbalagun taldea, Berbots, Bizarra Lepoan eta Aitxul euskara-elkarteak. ○

liburuak



Amets ameslari
Fernando Morillo
Gaumin

Mutiko ameslaria da Amets. Ametsetako "ipuin denak, ordea, ez dira gozoak... Gurasoek dibortziatu nahi ei dutela, eta amak minbizia duela jakingo du". Minbiziaren aurkako borroka du ardatz lanak; eta gaztetxoek gaitzaren barri zelan har dezaketen, eurek zer jarrera balia daitekeen...



Errateko nituenak
Pello Salaburu
Erein

Cuzcora (Peru) egindako lanbidaiatik bueltan, iritzia eta kronika, errealitatea eta fikzioa nahastuz, bidaia-kronika eta oroitzapen liburua ondu du EHUko errektore ohi eta idazleak. Hango eta bertoko kontuak, aspaldikoak, oraingoak... Bere iritzien azalpena, euskal egoeraz, bizitaz...

[kirola]

Elaia Torrontegi > taekwondolaria

“Tatamiaren barruan ditudan sentsazioek zentzua ematen diote eguneroko lanari”



Taekwondoko Euskal Federazioagaz joan da Elaia Torrontegi Alemaniako Irekira

Elaia Torrontegi Plentziakoa da sortzez, baina etxetik alde egin behar izan zuen taekwondoan aurrera egin ahal izateko. 8 urterekin hasi zen kirol horretan, eta bere esanetan, borroka-arte horren inguruan eraikia du bere bizitza. 20 urte dira kompetitzen hasi zenetik, eta urte horietan guztietan etengabe egindako lanarekin, nazioarteko maila gorenean egotea lortu du.

—Aurten Hamburgoko Irekian lehiatzeko deitu dizute. Aurretik ere hiru alditan aritu zara txapelketa horretan, eta horietan guztietan domina eskuratu duzu. Zelan ikusten duzu zure burua?

—Bai, Alemaniako Irekian jende asko lehiatzen da, eta txapelketa lehiatua eta gogorra da. Gainera 3 asteren buruan Europako txapelketa izango dugu Bakun, beraz honetan bertan parte hartzen duten asko arituko dira horretan. Gu primerako lana egiten gabilta, gure azken txapelketan Holandan ozta-ozta geratu ginen domina eskuratzeko, eta oraingoa etxera baten

bategaz bueltatzeko gogoia dugu.

—Zein zailtasun ikusten dituzu lehiaketa horretan?

—Esperientziak dira gerora atzera begira benetan geratuko zaizkidanak, beraz, txapelketa eta nazioarteko irteera bakoitza ehuneko ehunera bizitzeko gogoz nabil. Kirolaz gozatzen dut, tatamiaren barruan ditudan sentsazioek eta bizipenek zentzua

**«Apurka norberaren
mugak gainditu eta
helburuak lortzen ditugu»**

ematen diete eguneroko entrenamenduei. Horretaz gain, munduan ibiltzea, herrialdeak ezagutzeta eta mundu osoko jendeagaz aritzea pribilegio galanta da niretzat.

—Noiz arte nahiko zenuke jarraitu?

—Rio de Janeiroko Olinpiadetan bizi ahal izateko bidaia eta esperientziak agurrik beroena izango lirake, dudarik gabe. Dena den, orain arte bizitako guztiagaz harro eta gustura sentitzen naiz, pribilegio galanta bizi ahal izan dut-eta! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa
Kirol
moda**



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Unai Aranzadi Ormaetxea > kazetaria eta errealizadorea

“Bakarrik inporta zaizkigu protagonisten bizitza hobez dezaketen historiak”

Kongori buruzko *Jambo Amani?* (*Bakea badago?*) dokumentala aurkeztu zuen Unai Aranzadi Ormaetxea getxoztarrak iaz, eta apirilean erakutsi du Donostiako Giza Eskubideen jaialdian. Aranzadi kazetaria da, gatazketan eta giza eskubideetan aditua; gaur egun Independent Docs ekoiztetxea zuzentzen du Suedian.



Info+: www.independentdocs.com

—Kongoko Errepublika Demokratikoari buruz diharduzu dokumentalean.

—Dokumentalak gai bi jorratzen ditu, azken ondorio batera heltzeko. Lehen gaia da Kongoko Errepublika Demokratikoko gerra, bost milioi hildako eragin duena; bigarrena da desmobilizazioa, desarmatzea eta FDLRko milizianoen ustezko birgizarteratzea. Horren guztiaren ondorioa da sekula ez dela bakerik egongo, ez Kongo ekialdean, ez beste inon, justizia sozialik ez dagoen bitartean. Uste dut pelikula honengaz bat etor daitezkeela munduko edozein tokitako pertsonak.

—Zergatik Kongori buruz?

—2008ko udagoiengan, gerrako fase gordin batean, CNNko kazetari gisa egon nintzen Kongon, eta garai hark markatu ninduen. Esanahiez beteriko historia kontatzeko beharra sentitu nuen, iparraldeko jendeari ulertzen laguntzeko hegoaldekoen zoritxarra. Kongori buruz diharduen historia bat da, baina orokorra da; haren bitartez, europarrak afrikarrakaz bat etor daitezke: herrialde horietako pertsonengan pentsatzean gizatasuna kentzen diegu eta horregaz apurtu gura nuen. Hegoaldean bizitzak baliorik ez daukalako ideiaz apurtu gura nuen: gorroto dut esaldi hori, guztiz arrazista da! Bizitza oso baliotsua da eta balio bera dauka mundu osoan.

—Mundu osoko jaialdietan erakutsi duzu lana, zer ekarri dizu?

—Dokumentalen jaialdiek gauza positibo asko dakarte. Munduko errealizadorerik onenak ezagutzen dituzu, eurakaz igarotzen dituzu egun batuk lehia sanoan, euren kalitatetik eta esperientziatik ikasten duzu, lagunak egiten dituzu eta profesio-

handik metro gitxira jazotzen ari ziren gertaera historikoak direla-eta.

—Independent Docs ekoiztetxean zeri buruzko lanak egiten dituzue?

—Gerrak, giza-eskubideak eta mota guztietako gatazketan espezializatuta gaude, betiere gure historietako pertsonak askatzen laguntzeko ekarpena egin nahian.

“Hegoaldean bizitzak baliorik ez daukalako ideiaz apurtu gura dut: gorroto dut esaldi hori, guztiz arrazista da!”

nal gisa hazten zara. Gainera, ikuslego bariarengana iristen zara. Gure kasuan, horrela izan da bost kontinenteen luze eta zabalean, Bogotatik Sydneyra eta Luxorretik Helsinkira, Jaipurretik igarota. Gaur arte ezagutu ditugun artean Kiev aukeratuko nuke: interesgarria izan da, bai maila oso altuko jaialdia delako, bai

Inoiz ez ditugu kontaktatzen “historia onak” beste barik. Historia onak kontatu behar dira eta horien bitartez lagundu. Bakarrik inporta zaizkigu protagonisten bizitza hobez dezaketena. Ez dugu erabilpenik egin gura sufitzen dutenak subjektu komertzial hutsa bailiran, emozioatzeko edo entretenitzeko “material” ona bailiran. ○

Aritz Bergara

Atal honetan agertzen diren testuak eta ilustrazioak “Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik” proiektutik ateratakoak dira. Adarmendi eta Orritz euskal kultur elkarteek bultzatutakoa. Materialak ikusteko edo informazio gehiago lortzeko www.euskalherriko.mitologia.com webgunera jo.



Gauargi edo Argidun. Ilustrazioa: Daniel Castello

Gauargi **Gauargi edo Argidunak, esaten diegu gaueko iratxo txikiei, normalean lurtean argi edo puntu argitsu modura azaltzen direnei zuzaitzen batean edo harkaitzen baten gainean**

Gauaz agertzen diren pertsonaia guztiak ez dira txarrak, ezta?

Bada, kasu honetan jeinu onberak eta errukitsuak dira Gauargiak, izan ere, mendietan galduta dauden pertsonen laguntzen diete, beren agerpenarekin jarraitu beharreko bidea adieraziz. Iluntasunean galdurik, zeinek ez luke jarraituko argiak markatzen duen ibilbidea?

Kondaira

Orain dela urte asko, Arratian, zehazki Artea udalerrian, zera gertatu zen: gauak gazte bat harrapatu zuen mendian behera zetorrela, egun osoa ardiekin igaro ondoren. Eguraldia bat-batean aldatu zen, eta

ordura arte udazkeneko egun polit bat izan zena egun desatsegin bihurtu zen. Haize boladak hasi ziren, eta laino trinkoa jaitsi zen mutikoa zegoen mazalak estali arte.

“Jegin onberak eta errukitsuak dira Gauargiak; mendietan galdutakoan lagungarri”

Orientazioa galduta, nora jo jakin gabe, bidexka batean ibiltzen hasi zen, nahiz eta inolako erreferentziarik eduki ez. Urratsek ez zuten inora eramanez, izan ere, bi ordu baino zerbait gehiago igarota, berriro ere abiaburuan zegoela ikusi zuen.

—Baina... Hauxe da eta hasierako le-

kua-pentsatu zuen, erdi harrituta, erdi haserre.

Orduan eseri egin zen, etsituta eta hotzez dardarka, urrunean argi txiki batek bere atentzioa erakarri zuen arte. Bat-batean altxa zen eta argi hartara hurbiltzen saiatu zen, baina hura desagertu egin zen eta sastraka baten gainean ikusi zuen berriro, lehenengo tokitik pare bat metrora besterik ez. Gazteak aurrerantz egin zuen berriro ere, eta egoera bera errepikatu zen. Argia desagertu egin zen, eta berriro ere hurbileko harkaitz batean agertu zen.

Horrela, apurka-apurka, Argidunak erakutsitako bidea jarraituz, Arteako etxeek emandako argiak ikusi ahal izan zituen urrunean. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko ditugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK- BOKATAK- PLATER KONBINATUAK

AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ

Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA



Hanburesak **Ogitartekoak**
Sanwichak **Plater konbinatuak**

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

txakoli
mota gane Tx.
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)
94 430 01 74
www.bodeguillabutron.com



Bat batean eginda japoniar era tradizionalan
www.fugulusarenas.com

Evaristo Churruga Kaia 2 (lonja) - Bizkaia Zubiko enparantza - Areeta - GETXO
944 808 796
Banaketa-eremua: Getxo eta Leioa



GOSARIAK
PINTXOAK
KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA
Ripa Kalea 1 (Udaletxe atzean)



Menu ederra itsasoari begira

Tf. 94 677 41 33
Txurrua kalea zenbakirik gabe - PLENTZIA
www.restaurantekaieder.com



Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com

Zure publia
hemen agertzea
gura baduzu

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

Zure taberna edo jatetxea
hemen agertzea gura baduzu
ipini gugaz harremanetan:

94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[pintxotan]

Arrigunagako uramakia

Getxon oinarritutako japoniar sushia



Ohiko sushia egiteaz gain, Getxoko izenak dituzten sushiak egiten dituzte Fugun

Gaurkoan Plentziako kostaldea albo batera utzi eta Areetara hurbilduko gara. Bizkaiko Zubiaren ondoko arkupetan Fugu taberna dago, eta bertan etxera eroateko kalitate handiko sushia dasta daiteke. Sushia japoniar platera da, arrozagaz eta itsaskiakaz egindakoa. Fugukoek, baina, Japonian ohikoak diren jakiak egiteaz gain, Getxora moldatutako hainbat sushi mota ere eskaintzen dituzte, hala nola, Uramaki Arrigunaga delakoa. Horrelakorik prestatu gura?

Lehenik eta behin, arroza hartu eta ondo egosi beharko dugu. Ondoren, arroza hoztuta dagoenean, makisu edo zerria batean nori alga bat jarri, eta horren gainean arroza jarriko dugu. Buelta eman guztiari, eta algaren gainean gazta krema,

otarrainxkak, aguakate zati bat eta izokin gordin zati bat sartuko diogu. Guztia ondo jarrita dugunean, dena kiribildu beharko dugu makisuaren edo zerraren laguntzagaz, eta lortutako biribilkiaren gainean izokin gordin xerra bat jarriko diogu.

Japoniar plater hau amaitutzat eman baino lehen, gome-saltsa prestatu beharko dugu. Horretarako, soja-saltsa, azukrea eta sesamoa hartu eta dena ondo nahastuko dugu. Hala, saltsa eginda dugula, biribilkia zortzi zatitan moztu eta zati bakoitzari gome-saltsa botako diogu. Horra hor Getxoko sushi aparta! o

Osagaiak: arroza, izokin gordin, nori-alga, gazta-krema, otarrainxkak, aguakate eta gome-saltsa



JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(samera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



MONIF JAIA 1
48995 GETXO (BI/KALIA)
croissanterie-getxo.blogspot.com

94 460 86 48

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria




LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Taberna Berrí

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Apiriluzeko z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

Torreña 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Liburrerriak

Orduña Mendatea 1
Tf. 94 430 22 13
GETXO

uk zure publizitatea hemen!

94 491 13 37 - publiuk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Ondo erlaxatuta bueltatu zara Aste Santuko oporretatik, eta ingurukoek eskertuko dute; izan ere, azken aldiari nahiko petral zenbiltzan. Segi horrela, on egiten dizu-eta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Aspaldi ibili zara lan bila eta, azkenean, lortu duzu ganorazko eskaintza egitea. Hilabete gutxi kontua bada ere baliatu aukera, curriculumean ondo lotuko da-eta!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Egunak luzatu dira eta badirudi eguraldi ona dakarrela, behingoz! Atara bizikleta kamarotetik, hautsa kendu, ondo olioztatu eta gozatzera! Lanera eta eskolara ere bizikletaz joan zaitzake.

META



(Irailak 17 urriak 16)

Gauzak bere onetik ateratzeko ohitura daukazu, badirudi danak kontra daukazula, baina ez da horrenbestera. Gauzak lasai hartu beharko zenituzke eta gehiago gozatu.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Oporrak joan oporrak etorri beti daukazu aitziaren bat herritik ateratzeko. Zer, daborduko udarako planean pentsatzen? Oraingoan nora joango zara: Karibera ala Txinara?

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Orain duzu sasioa tomateak landatzeko. Ez duzu leku askorik behar, lorentzi handi batzuk lortu eta kito! Uda osoan jan ahalko dituzu, natural-naturalak!

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Eguna luzatu duenetik ez dago etxean sartuko zaituenik. Primeran pasatzen duzu kalean lagunak, baina gogoratu exea ez dela hotela, eta gurasoei lagundu behar diezula etxeko lanak.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Zure maitañoak sorpresa emon gura duzu eta asteburupasa ederra antolatu du, baina zuk planak eginda zeunden eta ez duzu gura beste baterako utzi. Agian biak batera ditzakezu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Zuk opor gutxi egin duzu aurren, ikasi eta ikasi ibili zara-eta Aste Santu osoan. Horrelakoa da ikasle-bizitza, baina pentsa uda lasai asko igaroko duzula. Ekin gogoz!

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Oraintsu da unerik aproposena bainujantzia erosteko, laster salduko dituzte-eta merkeenak eta politenak. Halere, oraindino tarre bat ixaron beharko duzu estreinatzeko...

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Lore eta landare pila oparituko dizute, antza, aurrekoan esan zenuelako oso gustuko dituzula. Kontua da ez daukazula leku nahikorik danak sartzeko. Lagunen bati oparitu, eskertuko dizu.

NEGUA




(Azaroak 16 abenduak 20)

Lan eta lan, ekin eta ekin, lotu barik zabiltza: badaukazu garaia atsedean hartzeko. Moxila bete eta zoaz norabait, inork aurkituko ez zaituen leku ederren batera...

Zu hotza, ni beroa.

Laura Sales, 2014



Bioh maite dugu Zuberoa

Kopiak
SALGAI
UK aldizkariaren
bulegoan



Uribe Kostako
aldizkariaren
ekoizpena



gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Nabarmendutako gunetako ariketak bideratuz, egoki bete egizuz lauki guztiak, jakinda lerro eta zutabe bakoitzean 1 eta 6 bitarteko zenbakiak ageri direla eta ez dela zenbakirik errepikatzen. Adib.: bi laukiko gune batean ariketa "7+" bada, honako hauek izango dira laukiak: 1+6, 3+4 edo 2+5 (ordena ez da kontuan hartzen).

12*	1	2/	
	2/		3
2/	7+	3-	
		5+	

1-	6*		2/
		3-	
2/			2-
2	7+		

gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Zein beste izenez ezagutzen dugu maiatza?

- Mahaiko gatza
- Maite-sasoia
- Loraila

La Gusana liburudenda SARIA
 Tellagorri plaza, Algorta
 Tf. 944 911 412 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: 250.a
 > Irabazlea: **Ez dago irabazlerik***
 *deitu telefonoz: 944 911 337

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

Zaindu SARIA
 Osteopatia-Fisioterapia 
 Doctor Landa 4, SOPELA.
 Tel: 94 602 67 79 **zaindu**
 Esku Terapio Zentrua

> Aurrekoaren erantzuna: Bidaiak denboran zehar
 > Irabazlea: **Estibalitz Peciña***
 *deitu telefonoz: 944 911 337

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak uk@aldizkaria.biz helbide elektronikora edo 944 911 337 telefonora deitu



KARLA LLANOS ETXABEK UTZITAKO ARGAZKIA

Memorias de Getxo bloga

ITXAS GANE TALDEKOAK, 1966

Butroera egindako urteeran egindako argazkia duzue hori; 1966 urte hartan Itxas Gane taldekoek antolatutako ekimenetako batean ateratakoa. Egun hartako mendi ibilaldien sari-banaketakoa da, hain zuzen ere, eta Urdulizko tren-geltoki parean jarri ziren argazkirako. Garai hartan, ohitura zen legez, kaikuak jantzita ageri dira mendizaleak, txapela buruan gizonetzkoak eta, gaur egun bitxia badirudi ere, orduan emakumezkoak gonak jantzita joan ohi ziren mendira. ○

Atzeko aldean: Imanol Arteagoitia, Juanxu Elejalde, Jose Ignacio Gorostola (GB), Karla Llanos, Ritxi Basterretxea eta Iñaki Viota (GB).

Aurreko aldean: Arantxa Zubillaga, Mariasun Egaña, Isabel Bilbao eta (?).

PATXO TELLERIA > aktorea

“Bolada batez isolatuta egon nahiko nuke sormena lantzeko”

Testua: **Iker Rincon** Argazkia: **Patxo Telleria**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Defini ezina.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez nuke inoiz pelikula bat ikusiko non protagonistaren papera ni bezalako aktore eskasak egiten duen.

Gogoko esaldi edo lelorik?

Behin taberna batean irakurri nuen idazle baten esaldi bat, uste dut Samuel Beckett-ena zela, ikaragarri ederra. Ez dut hitzez hitz gogoratzen, baina honela zioen gutxi gorabehera: *“burbuilak gara airean, zingira baten gainean, oharkabean lokatzaren kontra jo eta eztanda egiten dugula, existentzia deitzen diogun zarata xumea sortuaz”*. Norbaitek esaldia bere osotasunean gogoratzen badu, mesedez, igor diezadala.

Zure haurzaroko oroitzapen bat?

Hondartzan, ilunabarrean, bainatzen haien izenak ere gogoratzen ez ditudan lagun minekin.

Zer barik ezin zaitezke bizi?

Semeak faltako balitzaizkit ez dakit nola egingo nukeen aurrera. Objektuei dagokienez, pianoak ere konpainia egiten dit.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Izan nahi, leopardo: ederra, indartsua eta autosufizientea. Baina errealitatera joz, baten batek esan dit inoiz barraskiloaren antza dudala, barruraka bizitzeko dudana joeragatik.

Zer edo nor eroango zenuke irla isolatu batera?

Idazmakina, eta paper sorta galanta. Normalean jendez, whatsapppe eta zarataz inguraturik lan eta bizi naiz. Nire ametsetako bat bolada batez (kontu!, bolada batez esan dut) isolamendua lortzea da, sormenari bide emateko. Baina seguru asko ez nuke hemen egiten dudana baino gauza ganorazkoagorik egingo...

LABURREAN—Patxo Telleria (Bilbo, 1960) aktorea, zinema zuzendaria eta antzerkigilea da. Ez Dok Hiru Bikoteatro antzerki taldea sortu zuen Mikel Martinezegaz batera, eta horretan dihardu azken urteotan, antzezle eta antzerkigile lanetan. Apirilaren 25ean *Desentxufatuak* antzezlanean ikusi ahal izango dugu Telleria Martinezegaz batera Algortako Txorimalo gaztetxean, 20:00etan. Filmei dagokienez, lanean aritu den azkeneko pelikula *Bypass* izan da, gidoilari eta zuzendari gisa, Aitor Mazogaz batera.

Eskerrik asko

parte hartu duten taberna eta bezero guztiei!

Getxo On egin

V. Pintxo lehiaketa

Saridunak:

Getxo On egin pintxo: Aita Mari taberna *Ikurriña Bai, Prost!* pintxoarekin.

Herritarren saria: Aita Mari taberna *Ikurriña Bai, Prost!* pintxoarekin.

Pintxo tradizionalari saria: Bikain taberna, *Euskal Indabadaren Ikuspegi Berria* pintxoarekin.

Piropo irabazleak:

“Holako kiribilekin, holako kolorearekin zer ez nuke egingo nik zurekin!”. **Paula Chicano**

Euskararen erabilera egokiena: Abian taberna, *Abian* pintxoarekin.

Barrarik onena: Burdinola taberna *Foie Lasagna* pintxoarekin.

“Zelako testura, zelako piura, ni zurekin joango nintzake zerura!”. **Aritz Goikoetxea**

Irudien eta hizkien hizkuntzetan oinarrituta,
ArgiHizkiak lehiaketa antolatu dugu Uribe Kostan.
ArgiHizkiak testu laburren euskarazko
literatura-lehiaketa da.

'Fotografia' edo 'argazki' berbek "argiarekin
marraztea edo idaztea" dute jatorrizko esangura.
Horrenbestez, zuen begiradek argien eta hizkien
hizkuntzekin jolastea proposatzen dizuegu.

Maiatzaren 5etik ekainaren 5era

Argazkietan oinarritutako **TESTU LABURREN III. LEHIAKETA**



ARGIHIZKIAK
www.argihizkiak.com

LEHIAKETAREN EZAUGARRIAK

16 urtetik gorako edonork parte har dezake.

Testu bakoitza argazkietako batean egongo da oinarrituta, eta egileak adierazi beharko du zein den aukeratu duena (argazkiaren edo argazkilaria izenak idatzita).

Testuek euskaraz idatzita egon behar dute, euskara batuan edo euskalkitan.

Edozein testu mota onartuko da (prosa, olerkia, bertsoa, haikua e.a.).

sms, whatsapp edo posta elektronikoz bidaliko dira testuak:
argi.hizkiak@gmail.com • 619 935 541

Bi kategoria izango ditu lehiaketak:

Labur-laburra: 160 karaktere gehienez.

Laburra: 100 hitz gehienez

ARGAZKIAK IKUSTEKO ETA LEHIAKETAREN OINARRIAK

www.argihizkiak.com

info+: argi.hizkiak@gmail.com

t: 619 935 541



EPEA

Maiatzaren 5etik ekainaren 5era



URIBE KOSTAKO
ALDIZKARIA



aitxu!
sopelan euskeraz biz!



BERBALAMINE
euskaraz elkartuta



berbatz



**berba
lafun**



Getxo
URBIA - ERKARRENTA



Berango 21
Guztira berberak
duz gurekin batera



Leioa
URBIA - AYUNTAMIENTO
Leioa Berria



URIBE KOSTAKO
MANKOMUNITAD DE SERVICIOS
ZERBITZU MANKOMUNITATEA
BARRIA - BERANGO - GORAL - ERANDI - PUENTE - GORRA - URUGU
EUSKARA
ZERBITZUA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



**BFA
DFB**
Euzko Foru Aldundia
Euzko Foru Aldundia
Euzko Foru Aldundia